Application of a battery of cell and tissue level biomarkers in mussels (*Mytilus sp.*) from Arctic and Subarctic latitudes: identification of confounding factors, biomarker baseline values and responsiveness for an integrated environmental health status assessment

Zelula eta ehun mailako biomarkatzaile bateriaren aplikazioa latitude Artiko eta Subartikoetako muskuiluetan (*Mytilus sp.*): faktore nahasgarrien eta biomarkatzaileen oinarri balioen eta erantzun gaitasunaren identifikazioa ingurumen osasun egoeraren ebaluazio integratua burutzeko

Denis Benito

International PhD Thesis

2021

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

This study was funded by:

The **European Union's Horizon 2020** research and innovation program EU-H2020-B2-2005-2 under the grant agreement Nº 679266 (project GRACE: "Integrated Oil Spill Response Actions and Environmental Effects"; 2016-2019).

The **Spanish Ministry of Economy, Industry and Competitiveness** through the project seaDIMENTOX (CTM2017-87766-R; 2018-2020).

The **Basque Government** by means of a grant to the Consolidated Research Group "Cell Biology in Environmental Toxicology" (GIC IT810-13; 2013-2018).

The **University of the Basque Country** (UPV/EHU predoctoral fellowship)

1. SARRERA OROKORRA

Biojarraipen programak eta kutsaduraren ebaluazioa

Ozeano eta itsasoek Lurraren gainazalaren % 71 eta biosferaren edukiaren % 90 suposatzen dute, hori dela eta lur eta ur gezatako ekosistemek baino dibertsitate biologiko gehiago barneratzen dute (Commision of European Communities, 2005). Hala ere, mundu osoan zehar giza jarduerek sortutako kutsadurak ekosistema itsastarrak mehatxupean ditu (Adams, 2005; Garmendia et al., 2011). Kostaldeko ekosistemak isuri kroniko eta petrolio isuriak bezalako ustekabeko gertakariak direla eta bereziki afektatuak dira, organismoen osasuna, biodibertsitatea eta ondorioz ekosistemen funtzionamendua arriskuan jarriz (Islam eta Tanaka, 2004). Gaur egun kutsaduraz aparte ekosistema eta organismo itsastarrek barne eta kanpo prozesuen eragina jasaten dutela jakina da. Horien artean prozesu ekologikoak eta hauen interakzioak, arrantza guneak, aldaketa klimatikoa, habitataren aldakuntza eta eutrofizazioa egonik (Hylland et al., 2017). Honela, mundu mailan jarraipen programak bezalako estrategia desberdinak sustatu dira ekosistema itsastarretan kutsatzaileen efektuak ebaluatzeko (Melwani et al., 2014; Hylland et al., 2017; Chiu et al., 2018).

Jarraipen programa bat uretan, sedimentuetan eta/edo biotan ingurumenaren kalitate parametroen analisi sistematikoa da, area geografiko definitu batean eta denboran zehar errepikatzen dena (Goldberg et al., 1978). Itsas kutsaduraren jarraipen programen hasieran, kutsaduraren ebaluazioa uraren, sedimentuen edo biotaren konposatu kimikoen analisiaren bitartez egiten zen. Alabaina, jakina da kutsatzaileen detekzio eta kuantifikazioa metodologia analitikoen bidez ez dela nahikoa ingurugiroan duten inpaktua zehazki ebaluatzeko (Jha et al., 2000; Laane et al., 2012), kutsatzaileak ingurugiroan nahasketa konplexuetan agertzen baitira, biotan sortu dezaketen efektu toxikoen ebaluazioa zailduz (Jha et al., 2000). Honela, ekotoxikologian konplexutasun maila biologiko desberdinetako erantzun biologikoen ebaluazioa beharrezkoa da (OSPAR, 1998; Martínez-Gómez et al., 2017) eta JAMP, MED POL eta HELCOM bezalako itsas jarraipen programetan burutzen den bezala (OSPAR 1998; Viarengo et al., 2000; HELCOM, 2017). Era berean, “Itsas Estrategiaren Europar Zuzentarauak” efektu biologikoek itsas osasunaren ebaluazioan duten paper garrantzitsua (MSFD;

2008/56/EC) azpimarratzen du, ingurumen itsastarren egoera egokia zehazteko irizpideetan efektu biologikoak barneratuz (European Commission, 2008).

Kutsatzaileen eraginpean sortutako erantzun biologikoak ebaluatzeko biojarraipen prometan erabiltzen diren organismoak zentinela edo behaleak dute izena (Viarengo et al., 2007; Beyer et al., 2017). Organismo zentinela gisa erabili ohi diren organismoak biojarraipen prometan (Med Pol, UNEP Mediterraneoko Biomonitorizazio Programa; OSPAR Hitzarmena, UNEP/RAMOGE., eta abar) moluskuak (*Mytilus*,*Crassostrea*…), krustazeoak (*Gammarus sp.* Beste batzuen artean) eta arrainak (*Mullus .sp*., *Platichthys flesus L*., *Zoarces viviparus*, *Perca sp*., etab.) dira (Hylland et al., 2017; Viarengo et al., 2007). Organismo behaleek ezaugarri batzuk bete behar dituzte: (a) hedapen zabala, (b) kutsatzaileak biometatzeko gaitasuna, (c) egoera esperimentaletan mantendu eta ikertzeko egokitasuna, (d) kopuru handiak harrapatzeko erraztasuna, (e) mugikortasun mugatua, (f) biologia ezaguna eta (g) kutsatzaileekiko sentikortasuna izatea (Beeby, 2001; Fox, 2001; Basu et al., 2007). Organismo behaleen artean muskuiluak asko erabiltzen dira kutsatzaileen efektu biologikoak ebaluatzeko jarraipen programa itsastarretan (ICES, 2012; Beyer et al., 2017; Faggio et al., 2018) Edward Goldberg et al. (1978)-ek “Mussel Watch” izeneko programa abian ipini zutenetik. Kutsatzaileen eragin biologikoak ulertzeko, biomarkatzaileak (kutsatzaileen aurrean ematen diren erantzun biologiko goiztiarrak) itsas jarraipen prometan asko erabiltzen dira (Viarengo et al., 2007; Beyer et al., 2017), horietako asko muskuiluetan aplikagarriak izanik (UNEP/RAMOGE, 1999; ICES, 2012).

Muskuiluak organismo behale gisa

Muskuiluek organismo behale gisa duten erabilera zabala bere ezaugarri biologiko eta ekologikoak direla eta da, izan ere kutsaduraren jarraipen prometarako eta esperimentu toxikologikoetarako oso egokiak dira (Moore, 2004; ICES, 2012; Beyer et al., 2017). Muskuiluak, iragazketa bitartez elikatzen dira eta jarduera metaboliko baxua dute, beraz, hauen ehunetan aurkitu daitezkeen kutsatzaileen kontzentrazioak ingurumenean aurkitzen denaren magnitudearen isla nahiko zehatzak dira. Bestalde, nahiz eta kutsatzaileekiko sentikorrak izan, ingurumen baldintza desberdinekiko

toleranteak dira, kutsatzaile mota gehienen maila nahiko altuekiko ere. Muskuiluak zelaian biltzeko eta laborategian mantentzeko errazak dira, esperimentazioan hauen erabilera zabala ahalbidetuz. Gainera, ekonomikoki garrantzitsuak diren organismo sesilak dira, geografikoki oso hedatuta egonik. *Mytilus* generoko itsasertzeko komunitate arrokatsuetako osagai garrantzitsuenetarikoak dira ipar eta hego hemisferioko ur hotz eta epeletan (1. irudia). Hiru taxon aurkitzen dira (*M. galloprovincialis*, *M. edulis* eta *M. trossulus*) Europan (Hilbish et al., 2000; McDonald et al., 1991). Hiru taldeek identitate genetiko nahiko desberdintzatuak mantentzen dituzte mundu mailan, neurri handi batean taxonak probintzia biogeografiko ezberdinetara egokituta daudelako (Gardner, 1996). Hala ere, probintzia biogeografiko batetik besterako trantsizio eremuetan, hibridoak aurkitu daitezke (Brooks et al., 2015; Gardner eta Thompson, 2001).

Muskuiluak (*Mytilus spp.*) marearteko guneetatik marea azpiko guneetara hedatzen dira, estuarioetatik baldintza itsastarretararte, eta kostaldeko gune babestuetan eta olatuen efektua jasaten duten guneetan aurkitu daitezke (Gosling, 2004). Marearteko eremuan, muskuiluen goi banaketa muga faktore fisikoek gobernatzen dute. Harrapariek berriz, beheko muga ezartzearen arduradunak dira nagusiki (Seed eta Suchanek, 1992).



1. Irudia: *Mytilus* generoko muskuilu itsastarren distribuzioa (Gaitán-Espitia et al., 2016)

Muskuiluen ehun bigunak analisi kimiko zein haragi baldintza indizeetarako erabiltzen da ingurumenaren osasunaren ebaluazioan. Gainera, organo desberdinak,

hala nola oina, mantua, zakatzak eta liseri-guruina, bereizita erabiltzen dira biomarkatzaile desberdinak aplikatzeko (ICES, 2012). Oinak lokomozio gaitasuna ematen die muskuiluei, batez ere fase jubenilean. Oina proportzionalki oso tamaina handia dauka, galtzerdi itxurakoa da, eta hemolinfa espazio zabal bat inguratzen duten gihar geruza zirkular eta longitudinalek osatzen dute.

Bibalbioetan, mantua oskolaren barrukaldetik animalia osoa inguratzen duten bi lobuluz osatuta dago, hemolinfa hodiak, nerbioak eta ertzeetan bereziki garatutako muskuluak dituen ehun konektiboz osatuta dago. Mantuaren ertzak pigmentatuta egon ohi dira, eguzki-erradiazioaren eragin kaltegarrietatik babesa eskaintzen duenak (Seed, 1971). Gametoak mantuan ugaritzen dira eta ziliodun kanaletatik eramaten dira gonoduktu parekatuetara eta mantuaren barrunbean isurtzen dira. Gametoak askatu ondoren mantua mehe eta gardena da. Itsas ekosistemen osasunaren ebaluazioan gametoen garapena aztertzen da muskuiluen osasunari eta fisiologiari buruzko informazio osagarria ematen duelako (ICES, 2011). Gainera, normalean 1:1 ar eme erlazioa duten arren sexu ratio hauen aldaketak disruptore endokrinoen kutsadura ekosisteman iradoki lezake (Ortiz-Zarragoitia et al., 2011).

Bibalbioen ugalketa-zikloa ebaluatzeko metodo fidagarrienak mantuaren gertakin histologikoetan oinarritutakoak dira (Hines et al., 2007). Halako gertakinetan gonaden garapen-etapa desberdinak identifikatu daitezke, Ortiz-Zarragoitia et al. (2011) deskribatu bezala (4. irudia):

- I. etapa. Atsedenaldia. Gonada inaktiboa edo ez diferentziatua.
- II. etapa. Gametogenesi goiztiarra. Gametogenesia hasi da, baina ez dago gameto heldurik.
- III. etapa. Gametogenesi aurreratua. Gameto helduak eta heldugabeak antzeko proportzioetan aurki daitezke.
- IV. etapa. Gonada heldua. Folikuluak obuluz edo espermaz beterik.
- V. etapa. Errutea. Folikuluak partzialki hutsik agertzen dira.
- VI. etapa. Errute-ostea. Folikuluak hutsik edo gameto hondarrekin agertzen dira.

Ugalketa zikloak ingurumen faktoreen aurrean malgua da (tenperatura, elikagaien eskuragarritasuna), geografikoki erlatiboki hurbil dauden muskuilu

populazioen arteko desberdintasunak sortuz edo/eta urteko bariazioak eraginez populazio berdinaren barnean. Hala ere, kutsatzaileek aldaketa nabarmenak eragin ditzakete ugalketa zikloan (Ortiz-Zarragoitia et al., 2011). Orokorrean, *Mytilus sp.* muskuiluen gonaden garapena neguaren eta udaberriaren bueltan hasten da uraren tenperatura eta elikagaien eskuragarritasuna handitzen direnean, errutea udaberria aurreratuagoa dagoenean gertatu ohi da (Gosling, 2004; Beyer et al., 2017). Elikagaien eskuragarritasunaren arabera, gonadak berreskuratzeko eta umatzeko sekuentzia berriak uda amaieran gertatu daitezke. Bestela gonaden birxurgapena ematen da erreserba ehunen garapenarekin batera. Ziklo gametogeniko berria uda amaieran hasten da (Garmendia et al., 2010; Ortiz-Zarragoitia et al., 2011). Mantua mantenugaien erreserbak metatzeko organo nagusia da, glukogenoa batez ere (Gosling, 2004). Erreserbak udan zehar metatzen dira eta udazkenean eta neguan erabiltzen dira gametoak eratzeko. Muskuiluak planktonez eta beste itsas izaki mikroskopikoez elikatzen dira. Zakatzak, “ctenidia” ere deitzen direnak, lauak dira, homorhabdikoak (grekerazko *homos*, bera; *rabdos*, haga; serie uniformeak), ez-plikatuak eta filibrankoak. Zakatzak gasen elkartrukea eta elikadura gauzatzen dute. Hauen gainazal zabal eta meheak eta hemolinfa hornidura aberatsak gas- trukerako egokiak izatea dakar. Hemolinfa desoxigenatua giltzurrunetatik zakatzetara eramaten da zakatz-hodi aferentearen bidez. Filamentu bakoitzak hodi honen adar txiki bat jasotzen du. Filamentuak, funtsean, hodi hutsak dira eta barruan hemolinfak zirkulatzen du. Gas-trukea filamentuen horma meheetan zehar gertatzen da. Filamentu bakoitzeko hemolinfa oxigenatua zakatz hodi eferenteren bidez giltzurrunera eta bihotzera eramaten da. Zakatzetan oxidazio prozesuak ugariak dira, disolbatutako kutsatzaileen sarrera gune nagusia zakatzak bait dira. Ondorioz urak garraiatutako kutsatzaileen eraginpean dagoen lehen organoa da (Vidal-Liñán eta Bellas, 2013).

Muskuiluetan, elikadura zakatzetan hasten da. Zakatzak, mantuaren barrunbean zehar ponpatutako uretan suspenditutako partikulak traktu ziliar ezberdinekin hartzen dituzte, garraio mekanismo hidromekaniko eta mukoziliarra erabiliz (Gosling, 2004). Zakatzek mantuaren barrunbea ganbara inhalante eta exhalanteetan banatzen ditu. Irekiera inhalantetik sartzen den ura ganbara exhalantera eramaten da zakatz eta mantuaren gainazaleko zilioen bidez, eta irekidura exhalantetik irteten da. Bi

irekiguneek velum (mantuaren barneko tolesdura) gihartsuak dituzte, mantuaren barrunbean zehar ur-fluxua erregulatzen dutenak. Esekiduran dauden partikulak ezpainetako palpoen oinarrian dagoen zirrikitu batetik sartzen dira ahoan. Ahoak, eta urdailera doan hestegorriak, gaineztadura-epitelio ziliatua dute, mukopolisakarido azidoak eta neutroak jariatzen dituzten mukozitoen bitartez, animalia elikatzen ez denean ere (Beninger eta Le Pennec, 1991). Hestegorriak ez du liseri-funtziorik, materiala zilioen bitartez liseri-guruinean dagoen urdailera heltzeko soilik balio du. Izenak adierazten duen bezala, liseri-guruinaren funtzio nagusia liseriketa da. Urdaila zaku lau bat da, eta bertara hestegorria irekitzen den aurreko muturrean eta hestea irteten da. Estilo kristalinoa urdailaren atzeko muturretik proiektatzen da urdailaren zoruan zehar eta ezkutu gastrikoaren aurka eusten da. Irensten diren partikulak estilo kristalinotik askatutako liseri-entzimekin nahasten dira (Gosling, 2004). Nahasketa eta liseriketa zelulaz kanpoko prozesuetan liseritzear dagoen materiala urdaileko eremu handiak estaltzen dituzten traktu ziliatuen eraginpean daude. Bibalbioen liseri-guruinean, urdaila amaiera itsuko albeoloetan adarkatzen da konduktu ziliatu sekundarioen ondoren (2. Irudia). Hodi horien barruan bi norabidetako fluxu jarraitua dago (2. Irudia): materiala hodietan edo albeoloetan sartzen da zelula barneko liseriketa eta xurgapena gauzatzeko eta hondakinak urdaila eta hesteetara kanporatzen dira.



2. Irudia: Ezkerrean, bibalbioen liseri-guruinaren konduktu sistema. Eskubian, bibalbioen liseri-guruinaren ebaketa non absortzioa eta zelula barneko liseriketa ikusten diren. Owen (1955)-tik moldatua.

Liseri-albeoloen epitelioa bi zelula motaz osatuta dago, liseri-zelulak eta zelula basofiloak (Morton, 1983) (3. irudia). Baldintza normaletan, liseri zelulak ugarienak dira (Marigomez et al., 1990; Zaldibar et al., 2008). Zutabe formakoak dira, ondo garaturiko

sistema endolisosomikoa dute eta elikagaien liseriketa intrazelularra gauzatzen (Morton, 1983; Owen, 1972). Liseriketa entzima hidrolitikoak dituzten lisosomen barruan gertatzen da. Lisosomak hidrolasa azidoak (pH 4,5-5,5) dituzten ia eukarioto guztietan oso kontserbatuak dauden funtzio anitzeko organuluak dira eta elikagaien zelula barneko liseriketa burutzen dute (Allison, 1969). Konpartimentu endolisosomikoa etengabe fusionatzen den besikula sistema bat da (a) Golgi aparatutik ateratako besikula jariatzaileen entzima hidrolitiko berriak jasotzeko eta; (b) autofagosomekin eta endosoma berantiarrekin batzeko (Owen, 1973). Horrela, organulu kaltetuen (mitokondrioak eta erretikulu endoplasmatikoa) degradazioan zelulen ziklo autofagikoaren fase gisa (Klionsky eta Emr, 2000; Moore et al., 2006) eta endozitosiaren bidez irensten diren materialen liseriketan parte hartzen dute (Moore, 1985).

Zelula basofiloak piramide formakoak dira (3. Irudia) eta hauen zitoplasmaren zati handi bat erretikulu endoplasmatiko pikortsuaz (ER) eta Golgi gorputzez dago osatuta, eta horrek adierazten du zelula hauek proteinen sintesian dutela funtzio nagusia. Albeoloen lumenera zelulaz kanpoko liseriketarako entzimen jariapenean garrantzia izan dezakete, baina jariatze zelulen eginkizun zehatza ez dago argi (Weinstein, 1995). Lekube et al. (2000) eta Izagirre eta Marigómez (2009) entzimen transferentzia lisosomikoa gerta litekeela iradoki zuten zelula basofiloetatik liseri-zeluletara. Horrela, zelula basofiloek, ER ondo garatua dutenek, hidrolasa azidoak transferituko lituzkete liseri-zeluletara, ER eta Golgi gutxiago garatuta dituztenak eta entzima lisosomikoen eskari altua dutenak asko garatutako sistema endo-lisosomikoa hornitzeko, neurri handi batean liseriketa/marea ziklo guztietan berritu behar dena. Liseriketa prozesuaz gain, liseri-guruinak xenobiotikoen detoxifikazioan parte hartzen du eta kutsatzaileak metatzen ditu. Hori dela eta, liseri-guruina itu-ehun nagusienetarikoa da toxikologian biomarkatzaileen ikuspegia aplikatzen denean (ICES, 2012). Horrela, biomarkatzaileak hobeto interpretatu ahal izateko liseriketa prozesua eta liseri-guruinen funtzionamendua ulertzea garrantzitsua da.



3.Irudia: Bibalbioen liseri-epitelioa osatzen duten bi zelula moten ultraestrukturaren ikuspegia. Ezkerrean, liseri-zelulak. Eskubian zelula basofilikoak. Owen (1973)-tik moldatua.

Ipar Ozeano Atlantikoa, Ozeano Artikoa eta Itsaso Baltikoa: muturreko baldintzak eta petrolioaren mehatsua

Azken urteotan, petrolio ustiatze-gune berriak eraiki dira Itsaso Baltikoan eta Ipar Ozeano Atlantikoan, itsasontzi bidezko petrolio garraioa areagotuz (4. Irudia), eta ondorioz, istripuak gertatzeko arriskua emendatuz. 1977. urtetik abiatuta, itsaso hauetan, hainbat istripu gertatu dira petrolio isuri garrantzitsuak sortuz (Marine oil Information Gateway, 2005). Hau horrela izanik, ikerketa gunean itsas ekosistemetarako petrolio isuriak mehatxu garrantzitsuenetarikoen artean daude (Kostianoy et al., 2004). Petrolio isurien inpaktua dela eta (iraganean, gaur egun edo etorkizunean) argi dago Ipar Atlantikoa eta itsaso Baltikoa bezalako interesezko guneetan beharrezkoa dela jarraipen programak gauzatzea.

Erregai fosilen eskaera gero eta handiagoa izanik, petrolio erauzketak eta ozeanoetako garraioa nabarmen hazi dira azken hamarkadatan. Ondorioz, petrolio isurketak gertatzeko arriskuak areagotzen ari dira. 2010 eta 2018 artean, 59 petrolio isuri handi gertatu ziren mundu osoan, eta, ondorioz, 163.000 tona petrolio inguru isuri

ziren itsas ingurunera (ITOPF 2019). Gaur egun, itsaso artiko eta subartikoetan munduan aurkitu gabeko petrolioaren % 13-ra arte dagoela kalkulatu da (Camus eta Smit, 2019).

Ingurune hotzetan petrolio-isurien adibiderik ezagunena Alaskan 1989-an gertatu zen Exxon Valdez-eko petrolio-isuria izan zen. North Slope petrolio astunaren 41,6 milioi litro (37.000 tona) isuri ziren uharteetako itsasertzetik gertu (Atlas eta Hazen, 2011). Isuriaren ondoren gertatutako ekaitzek petrolioaren barreiapena asko emendatu zuten itsasertzaren % 15 estalduz *Prince William Sound* eta Alaskako Golkoan zehar (Short et al., 2004). Gertaera honek eragin handia izan zuen inguruko arrain eta ornogabe espezietan. Esaterako, Ozeano Bareko sardinzar (*Clupea pallasi*) larben artean anomalia tasa handiagoak behatu ziren olioztaturiko eremuetan eraginik gabeko eremuekin alderatuta (Faksness et al., 2020).



4. Irudia: Ipar Itsasoko eta Itsaso Baltikoko itsasontzi trafikoa (Lasserre eta Têtu, 2020).

Itsas ekosistema artiko eta subartikoen berezitasunak

Ingurune artiko eta subartikoak 50° iparraldeko paralelotik haratago dauden eskualdeak dira. Ingurune hauek gauerdiko eguzki eta egun osoko iluntasun aldiak izaten dituzte eta hilabete beroenek ez dituzte batez beste 10°C gainditzen (Hoberg et al., 2012). Ekosistema Artiko eta subartikoak aurkezten dituzten muturreko baldintzek direla eta bereziak dira izaki bizidunentzat. Neguan, ozeanoaren gainazala izoztu egiten da. Izotz estalki hau oso azkar urtzen den geruza mehetik hasi eta 3 m-ko lodiera izan dezakeen eta urte askotan iraun dezakeen izotz geruza lodia izatera ailegatu daiteke. Itsasoaren gainazala urte osoan zehar izotz-geruzaz estalita egon daitekeen arren, ingurune artiko eta subartikoak bizitzaz gainezka daude. Ekosistema hauek bi mila alga-espezie, hamarnaka mila mikrobio eta gutxi gorabehera bost mila animali-espeziek osatzen dituzte (Meltofte et al., 2013). Beste edozein ekosistema bezala, ekosistema hauek elika-sare konplexuetan antolatuta daude, mikrobio, fitoplankton, zooplankton, makroornogabe, arrain, itsas hegazti eta ugaztunen arteko elkarreraginekin.

Itsas ekosistema artikoak oso sentikorrak dira giza jarduerek eragindako aldaketekiko. Ustiapen handiko arrantza komertzialaren presio larriak, isurketek eragindako kutsadurak, atmosferan ematen den distantzia luzeko kutsatzaileen transferentziak, kutsadura akustikoak, petrolioa eta mineralen ustiapenak, tenperatura aldaketak, ozonoaren murrizketak, ontzien trafikoa areagotzeak eta beste faktore batzuek zuzenean edo zeharka eragiten dute ekosistema artikoen orekan (Clarke eta Harris, 2003; Jenssen, 2003, 2006; Huntington, 2009)

Ozeano Artikoko itsas ingurunea oso sentikorra da kutsadura kimikoarekiko, hala nola petrolio-isuriak eta hiri- eta industria-hondakinen isurketak, izotz-estalkiak garbiketa zaildu edo ezinezko bilakatzen baitu. Gainera, fauna sentikorragoa izan daiteke klima hotzetan isuritako hainbat kutsatziale (olioa bereziki) poliki degradatzen baitira. Itsasoan isuritako petrolioa jarduera desberdinen bitartez (irenstea, arnasketa, xurgatzea) animalietan sartzen da eta mehatxu zuzena eta hilgarria da bizidunentzat (Dietz et al., 2019).

Itsaso Baltikoaren berezitasunak

Itsaso Baltikoa Europako iparraldean dago, 10°-30°E eta 54°-66°I artean. Itsaso Baltikoa orokorrean sakonera txikikoa dela kontsideratu daiteke, izan ere, batez besteko 55 m-ko sakonera baitu. Arrorik sakonenek gehienez 495 m-ko sakonera dute eta Baltic Proper izeneko eskualdean daude. Itsaso Baltikoak itsasoak berak baino lau aldiz handiagoa den eremuko ibaietako ur geza jasotzen du. Ipar Atlantikoarekin Danimarkako itsasarte estu eta azalekoarengatik soilik dagoenez konektatuta, Itsaso Baltikoko ur-trukea mugatuta da. Inguruko hidrografiaren ezaugarri berezien artean, hegoaldetik iparraldera uraren gazitasunaren beherakada (5. Irudia), eta 60 eta 100 m bitarteko sakoneran nagusi den haloklina iraunkorra daude. Haloklinak, zeinak gainazaleko ura ur gezagoa sakoneko geruza gaziagotik bereizten duen, ur sakonen oxigenazioa Itsaso Atlantiko ur gazien noizbehinkako sarrerara mugatzen du (Leppäranta eta Myrberg, 2009). Baldintza hipoxikoak edo anoxikoak haloklinaren azpiko eremuetan egon ohi dira, hondoko komunitateen bizitza mugatuz (Ojaveer et al., 2010). Udan ur-zutabea ere tenperaturaren arabera estratifikatzen da, eta 10-30 m-ko sakoneran dagoen termoklinak goiko ur-geruza epela azpiko ur hotzetatik bereizten ditu. Udazkenean azaleko uraren hozte azkarrak geruzak nahastea ahalbidetzen du. Neguan izotz-estaldura partziala edo osoa sortzen da itsasoaren iparraldean, Finlandiako golkoan eta Botniako itsasoan 2-4 hilabete irauten du. Urtean zehar ematen diren tenperatura gorabehera nabarmenak bereizgarriak dira batez ere iparraldean. Gainazaleko ura berotzearekin, udaberri hasieran ikusitako zerotik hurbileko tenperaturetatik, gutxi gorabehera 20°C tenperaturetara iristen da uztailean (Leppäranta eta Myrberg, 2009). Gainazaleko uren bat-bateko hozteak *upwelling* edo azaleratze prozesu batek eragiten du, ur-masak aldi baterako nahasten dituena norabide bertikalean. *Upwelling* prozesuak normalean haizeek eragiten dute eta gehienetan kostaldetik hurbil dauden uretan gertatzen da (Omstedt et al., 2014). Itsaso Baltikoko fauna itsas eta ur gezako espezieak osatzen dute, eta sarritan organismoen banaketa-eremua zehazteko faktore kritikoena gazitasuna da. Gainera, goi mailako organismoen biodibertsitatea nabarmen txikiagoa da benetako itsas edo ur gezako ekosistemekin alderatuta, eta ezinbesteko ekosistemetako zerbitzu asko funtsezko

espezie bakarrak gauzatzen ditu (Koivisto eta Westerbom, 2010; Ojaveer et al., 2010). Neguan ekosistema osoa moteltzen duten argi mugak eta tenperatura baxuko baldintzek ere organismoen biziraupena zalantzan jartzen dute. Udaberriko ekoizpen primarioaren maximo estentsiboak eta argi-ordu ugariak eta udan uraren tenperatura igotzeak organismo heterotrofoen elikadura eta metabolismoa aktibatzen dituzte. Aipatutako ezaugarriek Baltikoa asalduren aurrean oso sentikorra bihurtzen dute, eta itsasoak eutrofizazioa, alga toxikoen loratzeak, substantzia arriskutsuak, azidifikazioa, hondo anoxikoen hedatzea eta espezie arrotz kaltegarrien sarrerak jasaten ditu (HELCOM 2010 a,b). Itsaso Baltikoko osasuna sailkapen integratzaileko hainbat tresna erabiliz ebaluatu da (HELCOM 2010a). Substantzia arriskutsuen kontzentrazioei, biodibertsitateari eta eutrofizazioari dagokionez, azkenaldian Finlandiako Golkoaren eta “Baltic Proper”-en egoera "moderatua", "eskasa" edo "txarra" gisa sailkatu da, bost urratseko irizpideetan, "altua"-tik "txarra"-era. Ebaluatutako kategoriei dagokienez, egoera "ona" Botniako Golkorako bakarrik erregistratu zen (HELCOM 2010b). Ekosistemen osasunaren ebaluazio eta sailkapen integratuak Finlandiako kostaldeko eremuaren eta “Baltic Proper”-en eremu gehienen egoera "eskasa"-tik "txarra"-ra definitu zuten (HELCOM 2010b). Baltikoko Itsasoko Ekintza Planaren (BSAP) akordioaren helburuak substantzia arriskutsuei dagokienez honako hauek dira: 1) "Oinarri mailetatik gertu dauden kontzentrazioak", 2) "Animalien osasun-arazorik ez" eta 3) "Arrain guztiak jateko seguruak" (HELCOM 2007). Helburu horiek lortzeko ebaluazio integratuak lan asko geratzen dela erakutsi zuen. Substantzia arriskutsuen kontzentrazioen jarraipena indartu behar da eta HELCOM-eko efektu biologikoen monitorizazioaren garapena adostu behar da HELCOM-eko Alderdi kontratatzaile guztietan (HELCOM 2010b).



5. Irudia: Itsaso Baltikoko gazitasun gradientea (PSU). S. Welsawski, (http://www.marinespecies.org/-tik berreskuratua: 2021/12/09)

Biomarkatzaileak: osasun egoeraren adierazleak

Arestian azaldu bezala, muskuiluak kutsatzaileen aurrean erantzun biologikoak ebaluatzeko zelai zein laborategiko ikerketetan sarritan erabiltzen diren organismoak dira (Beyer et al., 2017; Faggio et al., 2018). Biomarkatzaile kontzeptua hasieran diagnostiko medikoan aplikatu zen gizakien egoera edo gaixotasun jakin baten adierazle gisa (Paone et al., 1980), eta 1990eko hamarkadaren hasieran, oso erakargarria bihurtu zen ingurumen-ikerketetan (Depledge eta Fossi, 1994; Peakall, 1994). Ingurumen-toxikologian, biomarkatzaileak maila biokimiko, zelular edo ehun mailako neurketatzat onartzen dira, zeinak kutsatzaileen presentzia (esposizio-biomarkatzaileak) eta/edo erantzunaren magnitudea adierazten duten (efektu-biomarkatzaileak) (McCarthy eta Shugart, 1990). Abisu goiztiarreko erantzun hauek konplexutasun biologikoko maila baxuetan gertatzen dira eta iragarpenak egiteko aukera ematen dute, epe luzeagoan,

antolaketa biologiko-maila konplexuagoetan (6. Irudia) gertatuko diren iragarpenak egiteko aukera ematen dute. Oso gomendagarria da maila biologiko desberdinetako biomarkatzaile bateria bat erabiltzea, esate baterako, biokimikoa, zelularra eta ehun mailakoa, izan ere, biomarkatzaile indibidual batek kutsatzaileen presentziari buruzko informazio partziala baino ez du ematen (UNEP/RAMOGE, 1999).



6. Irudia: "Deep Water Horizon" petrolio isuriaren efektuak ingurugiroan, Beyer et al. (2016)-etik moldatua.

Ipar Ozeano Atlantikoan, Ozeano Artikoan eta Itsaso Baltikoan erabilitako biomarkatzaileak zelai ikerketetan: hutsuneak bilatzen

Azkeneko bi hamarkadatan Itsaso Baltikoan eta Ipar Ozeano Atlantikoan muskuiluen biomarkatzaileak erabiliz egindako zelai ikerketek (1. Taula) hainbat erantzun biologikoen bateriak erabili dituzte. Itsaso Baltikoan adibidez, gehienbat biomarkatzaile biokimikoak eta zelularrak aplikatu dira. Maila txikiagoan, biomarkatzaile molekularrak eta fisiologikoak erabili dira, eta gutxien erabili izan direnak ehun-mailako biomarkatzaileak eta histopatologia dira. Ipar Ozeano Atlantikoan, berriz, gehien erabili diren biomarkatzaileak maila zelularrekoak dira, eta hauen atzetikbiomarkatzaile fisiologiko eta biokimikoak. Analisi histopatologikoak Itsaso Baltikoan baino hedatuagoak daude, baina ehun mailako biomarkatzaileak ez dira maiz erabiltzen.

1. Taula: Ikerketa eremuetan azkeneko bi hamarkadetan egindako biomarkatzaileetan oinarritutako ikerketak.

ITSASOA	ARGITALPENA	EREMU GEOGRAFIKOA	BIOMARKATZAILEAK
Itsaso Baltikoa	Leiniö eta Lehtonen (2005)	Finlandiako kostaldea	MT, AChE, CAT, GST
	Baršiene et al. (2006)	Lituaniako kostaldea	MN, NL, LMS, AChE
	Lehtonen et al. (2006)	Finlandiako kostaldea	AChE, GST, CAT, MT
	Schiedek et al. (2006)	Alemaniako kostaldea	LMS, AChE, MN, MT, EROD, DNA aduktuak
	Dabrowska et al. (2013)	Gdańsk-eko golkoa	AChE, GST, CAT, GR, SOD, LPO, CI
	Turja et al. (2014)	Suediako kostaldea	LMS (NRRT), SOD, CAT, GR, LPO, GST, AChE, MN, Thiamina edukia, Erantzun bioenergetikoak, Jarduera fagozitikoa, Erritmo kardiakoa
	Höher et al. (2015)	Botniako golkoa	Jarduera fagozitikoa, Haemozito kopurua, Kaspasa jarduera, Jarduera hemolitkoa
	Höher et al. (2015)	Danimarkako kostaldea	CI, Jarduera fagozitikoa, Kaspasa jarduera Jarduera hemolitkoa
	Turja et al. (2015)	Finlandiako golkoa	SOD, CAT, GR, LPO, GST, AChE, Genotox, Bioenergetika, LMS (NRRT)
	Lehtonen et al. (2016)	Artxipelago itsasoa (Finlandia)	AChE, MT, GST, CAT, GR, SOD
	Smolarz et al. (2017)	Gdańsk-eko kostaldea	HP, Gonadaren atresia
	Larsson et al. (2018)	Suedia, Polonia eta Finlandiako kostaldeak	Lipido edukia, Atrofia indizea, HP, MN, BMI, GSI
	Lastumäki et al. (2020)	Bornholm arroa	CI, CAT, GR, GST, LMS (NRRT), Glikogeno edukia, LPF, NL, Genotox, Citotox, CEA
Ipar Ozeano Atlantikoa	Einsporn et al. (2005)	Wadden-eko itsasoa (Alemania)	LMS, NADPH
	Halldórsson et al. (2005)	Islandia hegomendebaldea	SFG
	Dondero et al. (2006)	Norvegia hegoaldea	LMS, LPF, NL, LSC, Ca^{2+}-ATPase, CAT, MT
	Zorita et al. (2006)	Norvegia hegoaldea	LMS, LPF, NL, LSC, Vv_{BAS}, HP
	Da Ros et al. (2007)	Islandia hegomendebaldea	NL, LSC, LPF, LMS, MT, HP
	Aarab et al. (2008)	Norvegia hegoaldea	LPF, LMS, HP
	Halldórsson et al. (2008)	Islandia hegomendebaldea	DNA harien hausturak, Erritmo kardiakoa, Elikatze ratioa
	Hylland et al. (2008)	Iparraldeko itsasoa	LMS (NRRT eta HC), MN, HP, Vv_{BAS}, MLR/MET
	Sundt et al. (2011)	Norvegia hegoaldea Iparraldeko itsasoa)	MN, LMS (NRRT)
	Beyer et al. (2013)	Norvegia Iparraldea (Melkøya)	(Zelai-ikerketan) LMS (NRRT), Haemozitoen nukleoen osotasuna, MN
	Nahrgang et al. (2013)	Norvegia Iparraldea (Tromsø)	CAT, GPX, GST, LPO, TOSC, EROD, LMS (NRRT)
	Brenner et al. (2014)	Iparraldeko itsasoa (Alemania)	CI, Parasitoen edukia, LMS, Glikogeno edukia, LPF, NL
	Helmholz et al. (2015)	Iparraldeko itsasoa (Alemania)	Proteomika
	Helmholz et al. (2016)	Iparraldeko itsasoa (Alemania)	CI, GSI, Energia ekonomiari lotutako parametroak, MET jarduera
	Storhaug et al. (2019)	Norvegia iparraldea (Tromsø)	CI, LMS (NRRT), LPO, CAT, GST, TOSC-OH, TOSC-ROO

Kolore kodea: Berdez, biomarkatzaile molekularrak; Laranjaz, biomarkatzaile biokimikoak; Urdinez, biomarkatzaile zelularrak; Beltzez, biomarkatzaile fisiologikoak; Gorriz, ehun mailako biomarkatzaileak eta histopatologia. Laburdurak: MN: Mikronukleoen presentzia, NL: lipido neutroen kontzentrazioa, LMS: Mintz lisosomikoaren egonkortasun testa, NRRT: Gorri neutroaren erretentzio denbora, AChE: Azetilkolinesterasa, MT: Metalotioneina edukiak, CAT: Katalasa jarduera, GST: Glutation-S-Transferasaren jarduera, EROD: Ethoxyresorufin-O-deethylasa jarduera, GR: Glutation erreduktasa jarduera, SOD: Superoxido dismutasa jarduera, LPO: Lipido peroxidazio maila, CI: Egoera indizea, HP: Histopatologia, BMI: Gorputz-masaren indizea, GSI: Indize gonadosomatikoa, LPF: Lipofuszinak, CEA: Zelularen energiaren distribuzioa, SPF: Hazkuntzarako irismena, LSC: Lisosomen egitura aldaketak, MET: Elektroi garraio sistema mitokondriala.

Ikerketa honetan erabilitako gako biomarktazaileak

Biomarkatzaile lisosomikoak

Erantzun lisosomikoak sarritan erabiltzen dira efektu-biomarkatzaile gisa, batez ere muskuiluetan eta beste molusku bibalboetan, zeintzuetan liseri-zelulak lisosometan oso aberatsak diren (JAMP, 2003; ICES, 2012). Liseri-zelulen lisosomek dituzten funtzio nagusiez gain, irensten duten materialaren zelula barneko liseriketa (Robledo et al., 2006) eta prozesu autofagikoetan parte hartzen dute (Moore et al., 2007, 2006), paper garrantzitsua jokatzen dute ere toxikoekiko erantzunetan konposatu kutsatzaileen bahiketaren eta metaketaren bitartez (Izagirre et al., 2008; Raftopoulou and Dimitriadis, 2011; Storhaug et al., 2019). Ingurugiro estresaren aurrean erantzun lisosomikoak hiru kategoria nagusitan banatu daitezke (Marigómez eta Baybay-Villacorta, 2003; Marigómez et al., 2005b): (a) mintz lisosomikoaren egonkortasuna murriztea, (b) lisosomen tamaina handitzea eta (c) lipido neutro asegabeen metaketan aldaketak bezalako eduki lisosomalen alterazioak.

Mintz lisosomikoaren ezegonkortzea kutsatzaileen eta horien ondorioen ebaluazio integratuaren planteamenduaren barnean sartzen den oinarrizko biomarkatzaileetako bat da Ipar Ekialde Atlantikoan (ICES, 2012), oinarrizko biomarkatzaile gisa hartzen da Itsaso Baltikoko Ekintza Planean (HELCOM. , 2012) eta Mediterraneoko Ekosistemen Hurbilketan (EcAp) (UNEP/MAP, 2014). Beraz, mintzaren ezegonkortzea kutsatzaile ugariren erantzun lisosomiko nagusia da eta estres orokorraren biomarkatzaile oso fidagarria gisa kontsideratzen da biomonitorizazio ikerketetan (Domouhtsidou eta Dimitriadis, 2001; ICES, 2015).

Mintz lisosomikoaren egonkortasunaren proba (LMS, *Lysosomal Membrane Stability* ingelesez) hidrolasa lisosomikoen (normalean N-acetil-ß-hexosaminidasa) jarduera latentea frogatzean oinarritzen da eta osasun lisosomikoa ebaluatzeko arrakastaz aplikatu da Bitensky et al. (1973)-en lan aitzindaritik. Substratuaren iragazkortasuna lisosometan handitzeko behar den labilizazio denborari ingelesez labilisation period (LP) deritzo (UNEP/RAMOGE, 1999). LP-aren jaitsiera esanguratsuak deskribatu dira produktu kimiko organikoen (Krishnakumar et al., 1994; Moore et al., 2007) eta metalen (Moore et al., 2007; Izagirre et al., 2014) pean. Muskuiluetan, 20 eta 25 minututik gorako LP balioek egoera osasuntsua adierazten dute, eta <10 min-ko LP balioak, berriz, osasun asaldatua edo estres egoera larria adierazten du (Viarengo et al., 2000; Izagirre eta Marigómez, 2009;).

Mintz lisosomikoaren ezegonkortzearekin batera, handitze lisosomikoa kutsatzaileekiko erantzun biologikoak ebaluatzeko jarraipen programen jarraibideetan dago (ICES, 2012). Orokorrean, lisosomak tamainaz emendatzen dira estres-baldintzetan, lisosomen bolumen-dentsitatearen emendioan (lisosomen bolumen-dentsitate handia (Vv_{LYS}) eta azalera-bolumen-erlazio baxuan (S/V_{LYS} balioak; lisosomaren tamainaren alderantzizkoa) islatua (Marigómez et al., 2005a). Zenbait kasutan, lisosomak handitzeak lisosoma-kopurua emendatzen du (Nv_{LYS}, lisosoma gehiago liseri-zelulen zitoplasman), baina Nv_{LYS}-en murrizketak ere deskribatu dira. Bestalde, kutsatzaileekiko esposizioak fase desberdinak barne hartzen dituen erantzun korapilatsua ere sor daiteke (Marigómez eta Baybay-Villacorta, 2003): (a) handitze lisosomiko iragankorra; (b) tamaina lisosomikoaren murrizketa iragankorra; eta azkenik (c) handitze lisosomikoa epe luzeko esposizioaren ondoren. Egitura-aldaketa lisosomikoak (LSC) normalean β-glucuronidasa entzima markatzaile lisosomiko gisa erabiltzen da kriotomoan egindako liseri-guruinaren ebaketetan eta irudi-analisiaren bidez zehazten dira (Izagirre et al., 2008; Izagirre eta Marigómez, 2009) (7. A eta B Irudiak). Orokorrean, parametro lisosomiko hauen erreferentzia-balioak aldakorrak dira urtaroaren arabera, baina $Vv_{LYS} > 0{,}004\ \mu m^3/\mu m^3$ eta $S/V_{LYS} < 4$ balioak muskuiluetan osasun-egoera degradatua dagoenaren adierazgarri kontsideratu daitezke (Garmendia et al., 2010; ICES, 2012).

Eduki lisosomikoen aldaketei dagokienez, zelula barneko lipido neutroen metaketa, kutsadura kimiko organikoarekin lotutako esposizio-biomarkatzailetzat hartzen da (Marigómez eta Baybay-Villacorta, 2003). Lipido neutroen metaketa lisosomikoaren handitzeak, gehiegizko lipido-tanten autofagiarekin lotuta egon daiteke (Moore, 1988; Krishnakumar et al., 1994) edo lipofuszinak izeneko pigmentuen (kaltetuako zelulen osagai hondakin liseriezinen indikatzaile direnak) formakuntzan parte hartzen dute erradikal askeek sortutako lipidoen peroxidazioari egotzi dakioke (Donato, 1981; Halliwell eta Gutteridge, 1984). Zelula barneko lipido neutroen metaketa, liseri-guruinaren kriotomoan egindako ebakiak, Oil Red O-z tindatu ondoren, irudi-analisiaren bidez zehazten da (ORO; Culling, 1974) (7. C eta D Irudiak), lipido neutroen bolumen-dentsitate bezala, liseri-epitelioaren bolumenarekin konparatuz. (Vv_{NL}; $\mu m^3/\mu m^3$) (Gomiero et al., 2015). Lipofuszinak lipidoen peroxidazioaren azken produktutzat hartzen diren pigmentuak dira (Cheung et al., 2001). Kutsatzaileen efektuen ondorioz, lipofuszinak metatzen dira liseri-zeluletan (Viarengo et al., 1990).



7. Irudia: Zelula mailako biomarkatzaile histokimikoetan neurtzen diren aldaketen adibideak. A,B: Lisosomen egitura aldaketak. C, D: Lipido neutroen metaketa. E,F: Liposufzina metaketa. Gezi beltzak: Lisosomak. Triangeluak: Lipido neutro tantak. Gezi gorrial: Lipofuszina granuloak.

Lipofuszinaren metaketa areagotu egin da PAH-en pean mantendutako muskuiluen liseri-zeluletan laborategiko nahiz zelai-baldintzetan (Krishnakumar et al., 1994). Lipofuszinen metaketa kriotomoan egindako liseri-guruin ebaketetan irudi-analisiaren bidez zehazten da Schmorl-en erreakzioarekin tindatu ondoren (Pearse, 1972) (7. E eta F Irudiak), lipofuszinen bolumen-dentsitatea liseri-epitelioaren bolumenarekin konparatuz (Vv_{LPF}; $\mu m^3/ \mu m^3$).

Ehun mailako biomarkatzaileak

Liseri-guruinaren epitelioaren zelula-moten osaera eta albeoloen egitura-aldaketak tresna garrantzitsuak dira ingurumen-osasunaren ebaluazioan (Zaldibar et al., 2007, ICES, 2012). Eskuarki, ehun-mailako biomarkatzaile hauek hematoxilina eta eosinaz tindatutako liseri-guruin parafina laginen ebakietan prozedura estereologiko bidez zehazten dira (Garmendia et al., 2011; ICES, 2012).

Aurretik aipatu den moduan, baldintza fisiologiko normaletan liseri-zelulak zelula basofiloak baino ugariagoak dira, baina estres egoera desberdinetan, zelula basofiloen proportzio erlatiboa handitu egiten da (Soto et al., 2002; Zaldibar et al., 2007). Zelula basofiloen proportzio erlatiboaren igoera kutsaduraren efektuekin lotutako liseri-zelulen aldaketa degeneratiboekin lotu ohi da (Marigomez et al., 1990 ; ICES, 2012) (8. A eta B Irudiak). Liseri-epitelioen zelula motaren konposizioaren alterazio hauek elikagaien liseriketan eta xenobiotikoen metabolismo eta metaketan asaldurak eragin ditzake (Marigómez et al., 1998). Aldaketa hauek hasieran zelula basofiloen proliferazioari egotzi zitzaien (Lowe eta Clarke, 1989; Marigomez et al., 1990), baina beranduago nagusiki liseri-zelulen galera eta zelula basofilikoen hipertrofiaren ondoriozkoa dela proposatu zen (Zaldibar et al., 2007). Erantzun azkarra, induzigarria eta itzulgarria da, zelula basofiloen bolumen dentsitatearen arabera (Vv_{BAS}) neur daitekeena. Kutsatzaileen eraginpean egon ondoren, Vv_{BAS} 0,12 $\mu m^3/ \mu m^3$ gainditu dezake *Mytilus galloprovincialis* muskuiluetan (Garmendia et al., 2010; Marigómez et al., 2006).



8. Irudia: Muskuilu baten liseri-albeoloen liseri-ehunaren prestakin histologikoa. A: Liseri-ehun erlatiboki lodia. B: Liseri-ehun erlatiboki mehea. LZ: Liseri-zelula. L: Lumena. Geziak: Zelula basofilikoak.

Moluskuetan kutsatzaileen ondorioz hobekien dokumentatutako ehun alterazioa liseri-guruinaren epitelioaren itxurazko atrofia edo "mehetzea" da (Kim et al., 2006; ICES, 2012) (8. A eta B Irudiak). Muskuiluen liseri-guruina oso dinamikoa eta plastikoa da. Liseri-albeoloen morfologiak aldaketa handiak jasaten ditu prozesu fisiologiko arruntetan ere hau da, liseriketaren faseetan zehar (Langton, 1975).



9. Irudia: Muskuiluen liseri-guruinean ematen diren osotasunaren aldaketak bi gertakin histologikoetan. A: Ehun konektibo besikular interstizial gutxi duen liseri-guruinaren ebaketa. B: Ehun konektibo besikular interstizial emendatua duen liseri-guruinaren ebaketa. K: Konduktua. LA: Liseri-albeoloa. EKB: Ehun konektibo besikularra.

Fase digestibo arrunten alterazioak ingurumen faktoreei egotzi dakizkieke, hala nola, elikagaien eskuragarritasuna, estres osmotikoa edo termikoa (Winstead, 1995). Horrez gain, askotan deskribatu da kutsatzaileen eraginpean dauden moluskuek liseri-guruinen epitelioetan masa galera garbia erakusten dutela, epitelioaren mehetze anormala sortzen duena eta azkenik atrofia edo liseri-ehunen galera dakarrena (Garmendia et al., 2010; Rocha et al., 2016). Epitelioaren argaltzeak eta atrofiak ingurumen baldintza estresagarrien aurrean erantzun ez-espezifikoa, induzigarria eta

berreskuragarria da, zeina atrofia indizearen bidez (Kim et al., 2006) eta ehun konektibo eta ehun digestiboen arteko proportzioaren (CTD) bidez (9. A eta B Irudiak) neurtu daitezke (Garmendia et al., 2010,2011).

Biomarkatzaileetan eragin dezaketen faktoreak

Kasu askotan, biomarkatzaileen erantzunetan eragiten duten ingurumen faktoreen ezagutza ezak edo nahaste faktoreen existentziak (adibidez, elikagaien eskuragarritasuna eta kalitatea, adina edo ugalketa-zikloa) interpretazio okerrak eragin ditzake kutsatzaile mailak eta biomarkatzaileen erantzunak (Beyer et al., 2017; González-Fernández et al., 2016). Laborategiko baldintzetan, **elikagaien hornikuntzaren aldaketek** (González-Fernández et al., 2015) edo **ugaltze-faseek** eragin esanguratsua izan dute biomarkatzaile molekularren erantzunetan eta haien interpretazioan (González-Fernández et al., 2017). Faktore hauek lotura estua erakusten dute, izan ere, **hazkuntza-tasak** eta ugalketa-baldintzak bezalako faktoreek **aldakortasun geografiko** nabarmena erakutsi zuten laginketa guneen artean elikagaien eskuragarritasun desberdintasunei lotuta (González-Fernández et al., 2016).

Mytilus edulis muskuiluak hedapen zabala du eskualde boreo-epeletan, Ipar-Pazifikoan, Ipar-Atlantiko eta Erdi-Atlantikoan, Ozeano Artikoraino (Bayne eta Bayne, 1976). Ozeano Atlantikoaren iparraldekoenetan bizi diren espezie honetako banakoek izoztutako baldintzetan 8 hilabetez bizirik irauten dutela ikusi da (Bayne eta Bayne, 1976), hala ere, haien hazkuntza eta ugalketa **tenperaturaren menpekoak** dira (Berge et al., 2005; Storhaug et al., 2019). *M. edulis* espezie dioikoa da, banakoak gutxi gorabehera urte bat edo bi ondoren ugaltzeko prest daude (Bayne eta Bayne, 1976; Beyer et al., 2017). Muskuiluaren lehen sexu heltzearen hasiera tamainarekin baino adinarekin eta hazkuntza tasarekin lotuta dagoela frogatu da (Sprung, 1983). Ikerketek oskolaren luzeraren hazkundeak eta ehun bigunen hazkundeak aldakuntza independentea dutela frogatu dute (Handå et al., 2011). Norvegiako kostaldeko hainbat tokitan bildutako muskuiluetan maskorraren luzera **latitudearen** arabera aldakorra dela frogatu da, hazkuntza tasak hegoaldetik iparraldera txikiagotuz (Handå et al., 2011). Ehun bigunen hazkuntza tasak ugalketa-zikloarekin eta eskuragarri dauden elikagaien

kantitatearekin eta kalitatearekin lotuta daude (Handå et al., 2011). Gainera, **airetango esposizioa** muskuiluen hazkuntza tasetan negatiboki eragiten duen beste faktore bat da itsasarteko indibiduoetan. Marearteko eremuan aurkitzen diren indibiduoek baldintza desberdinak jasaten dituzte marea azpiko muskuiluekin alderatuta, eta itsasgoran bakarrik elikatzen dira (Sprung, 1983). Banakoak sexualki helduak direnean, barneko (nutrienteen erabilgarritasuna eta hormonen presentzia) eta kanpoko (uraren tenperatura, gazitasuna, airearekiko esposizioa eta elikagaien erabilgarritasuna) faktoreen konbinazioak ugalketaren hasiera pizten dute, arrautzak eta espermatozoideak beren folikuluetatik askatzen dira eta gonoduktutik eta sifoi exhalantetik uretara igarotzen dira (Bayne eta Bayne, 1976; Sprung, 1983). Muskuiluen ehun desberdinetako lipido edukiaren eta ugalketaren aldakuntzak aurkitu dira Norvegiako Itsasoan eta Itsaso Zurian **urtarokotasuna**rekin eta geografiarekin erlazionatuta, kutsatzaileen sentikortasunean eragina izan dezaketenak, baldintza klimatiko eta hidrologikoen desberdintasunak faktore eragile gisa nabarmenduz (Fokina et al., 2018). Biomarkatzaileen erantzunen urtaroen aldakortasuna aztertua izan da *Mytilus galloprovincialis* eta *Mytilus edulis* muskuiluetan (Aarab et al., 2011; Nahrgang et al., 2013; Storhaug et al., 2019). Biomarkatzaileen erantzunetan desberdintasun geografikoak ere aurkitu ziren Ipar Iberiar penintsulako Abra estuarioko gune ezberdinetan ur epeletan lagindutako muskuiluetan (Marigómez et al., 1996), eta Artikoan bezalako ur hotzetan dauden gune ezberdinetan (Storhaug et al., 2019). Emaitza hauek guztiek argi erakusten dute tokiko ingurune-baldintzek erantzun biologikoetan eragin dezaketela. Beraz, espezie honen ugaltze-zikloaren eta hazkundearen aldaerak ez dira soilik tenperatura desberdintasunen araberakoak, elikagaien erabilgarritasunaren araberakoak baizik (Sprung, 1983; Page eta Hubbard, 1987; Stirling eta Okumuş, 1995; Thorarinsdóttir eta Gunnarsson, 2003; Beyer et al., 2017). Ondorioz, biomarkatzaileen erantzunen interpretazio okerra egon daiteke adinarekin edo ugalketa-baldintzekin erlazionatutako faktore nahasgarri potentzialen ondorioz, kutsaduraren aurkako biomarkatzaileen erantzuna gaizki interpretatzeko arriskua pairatuz (Cuevas et al., 2015, Beyer et al., 2017;). Horregatik, argi dago faktore nahasgarri horien aldakortasun naturalak biomarkatzaileen erantzunetan nola eragin dezakeen deszifratu beharra (Bignell et al., 2008; Bellas et al., 2014; Cuevas et al., 2015; Beyer et al., 2017).

Bibalbioen histopatologia: kutsaduraren indikatzaile eta faktore nahasgarri

Ingurumen-kutsatzaile kimikoak, hala nola metalak, hidrokarburo aromatikoak, koloratzaileak, hidrokarburo kloratuak, fenolak, nitrosoaminak, petrolio gordina, eta kutsatutako sedimentuak ornogabeetan gaixotasunak eragiten dituzte, neoplasiak barne (Gardner, 1993). Kutsatzaile horien ondorioak hiru aldagairen araberakoak dira: (a) ehun bakoitzaren zaurgarritasuna; b) produktu kimiko mota; eta (c) haien kontzentrazioa (Sparks, 1993); funtsean asaldura biokimikoak sortzen dituzte, prozesu metaboliko zelularretan disfuntzioak eragiten dituztenak eta, azkenean, antolakuntza maila biologikoa konplexuagoetan ageriko bihurtzen diren aldaketa morfologiko/fisiologikoetan islatzen dira eta gaixotasun gisa identifikatzen dira (Sindermann, 1993). Hala, alterazio patologikoak konplexutasun biologiko baxuetan ematen diren asalduren islapena direla esan daiteke (Moore eta Simpson, 1992). Aldaketa histopatologikoei buruzko ezagutza, ezinbestekoa da inguruneko estres-eragileek populazio mailan duten efektu subletalen papera ulertzeko (Stentiford eta Feist, 2005).

Patologiak, prozesu biologiko naturaletan ematen diren gaixotasunen eta disfuntzioen azterketa gisa defini daiteke, itsas organismoen osasun-egoera orokorraren adierazle sentikor, erabilgarri eta potentzial gisa erabil daitezkeenak kutsaduraren kudeaketarentzako ezinbestekoa izan daitekeena. Moluskuek parasitoak eta mota askotako gaixotasunak jasaten dituzte (Kent et al., 1989; Kim et al., 1998), eta, kasu batzuetan, parasito eta gaixotasun hauek osasunean eta ugalkortasunean eragin handia izan dezakete (Coustau et al., 1991; Pérez Camacho et al., 1997). Mota ezberdineko estres-eragileak, hala nola elikagaien eskuragarritasun baxua, uraren tenperatura, gazitasuna, marea biziak eta batez ere kutsatzaileak parasito eta gaixotasunekiko suszeptibilitatea areagotu dezakete, eta horrek organismoaren osasun-egoera murrizten du (Laird, 1961). Estres-eragileek organismoen infekzioekiko erresistentzia aldatzen dute. Bereziki, estres kimikoak eta termikoak ezkutuan dauden infekzioak aktibatzen dituztela ezagutzen da, patogeno fakultatiboen jarduera suspertu eta ostalariaren erresistentzia murrizten dutela (Sindermann, 1993). Gainera,

Muskuiluen (*Mytilus trossulus*) bilketa hiru laginketa sasoitan egin zen (2017/04/04 Finlandian, 2017/03/17 Alemanian, 2016/07/07 Finlandian, 2016/08/17 Alemanian eta 2016/10/26 Finlandian, 2016/11/08 Alemanian), Itsaso Baltikoko iparraldean (Finlandiako Golkoan; Tvärminne-ko Estazio Zoologikoan, Helsinkiko Unibertsitatearen parte dena, Hanko penintsulan 59°50'45.39"N 23°15'41.81"E) eta hego-mendebaldean (Kiel Fjord 54°22'11.24"N 10°9'17.70"E) (1. Irudia).



1. Irudia: Laginketa eremuak erakusten dituen mapa (izarrak, Kiel berdez eta Tvärminne gorriz). Koloreztatutako laukiek batez besteko espazialak egin diren eremuak irudikatzen dituzte.

Itsaso Baltikoko marea eza dela eta, ikerketa helburuetarako muskuiluak urpekaritza bidez bildu ziren 8 metro inguruko sakoneran. Murgilketa egin eta berehala muskuiluak sailkatu ziren eta 2,5-3,0 cm-ko luzera zuten 100 muskuilu guneko urarekin jarri ziren, ontzi termoisolatuetan. Muskuiluak laborategira eraman ziren eta giroko tenperaturan zegoen uretan mantendu ziren hurrengo egunera arte, disekzio egunera arte, alegia. Disekzio bakoitzean, mantua, zakatzak eta liseri-guruina barneratzen zituzten ebaketa transbertsalak egin ziren 20 muskuilutan analisi histopatologikoa eta ehun-mailako biomarkatzaileen analisia egiteko. 30 muskuiluren zakatzak eta liseri-guruina disekzionatu eta nitrogeno likidoan izoztu ziren, biomarkatzaile histokimiko eta biokimikoak aztertzeko. Muskuilu osoen lagin osagarriak izoztu ziren ehun bigunetako kutsatzaileak neurtzeko.

Laginen prozesamendua

Ebaketa transbertsalak % 4 formaldehidotan (itsasoko uretan diluitua) fixatu ziren, etanol bainu serie batean deshidratatu eta parafinatan murgildu Leica ASP3005 ehun prozesadorea erabiliz eta 5 µm-tako lodierako xaflatan ebaki ziren Leica RM2125RTS mikrotomo batean analisi histopatologikorako eta ehun-mailako biomarkatzaileak aztertzeko. Liseri-guruin bakoitza izoztuta gorde zen -80 °C-tan, eta gero 8 µm-tako zatitan ebaki ziren CM3050s Leica kriotomo bat baliatuz analisi histokimikorako. Izoztutako zakatzak eta liseri-guruinak biomarkatzaile biokimikoetarako erabili ziren.

Ehunetako PAH edukia

30 muskuilu taldekatuen ehun bigun laginak homogeneizatu ziren eta 5-10 g hartu laginketa gune eta urtaro bakoitzeko PAH-en estrakziorako. Barneko (Fluoro-PAH-ak, Chiron) eta etekineko PAH estandarrak homogenatuari gehitu zitzaizkien. Bost ml ur eta 10 ml etilazetato gehitu ziren eta laginak minutu batez irabiatu. 4 g $MgSO_4$z eta 2 g NaClz osatutako gatz nahasketa gehitu zen. Laginak berriro minutu batez irabiatu eta gero 10 minutuz zentrifugatu ziren. Etilazetatoaren estraktuaren gainnadantearen bost ml hartu ziren eta 200 µl isooktano gehitu zitzaizkion erauzketari. Etilazetatoa nitrogeno

fluxuaren azpian lurrundu zen eta 1 ml hexano gehitu zen. Estraktua beira artilea, Na_2SO_4 eta silizea zituen zutabe batean araztu zen. Hexanoan zeuden PAH konposatuak, hexano/diklorometanoarekin eluitu ziren (3:1, v/v). Eluzioa egin ondoren 0,5 ml isooktano gehitu zen disolbatzaileen gordetzaile gisa eta disolbatzailea nitrogeno-fluxu leun baten azpian lurrundu zen 0,5 ml-ko azken bolumena lortu arte. Hamar µl estandar injekzio gehitu ziren (PAH deuteratuak, Dr. Ehrenstorfer) eta lagina Thermo GC-MS/MS batekin (Trace 1310 GC Ultra gas kromatografoa eta TSQ Quantum XLS ultramasa espektrometroa) aztertu zen. Neurketak hautatutako erreakzioen monitorizazioa (SRM) moduarekin egin ziren. PAH konposatuen identifikazioa bi ohiko ioi fragmentu hautatuz egin da. Pisu freskoen unitateak pisu lehorreko unitate bihurtu ziren, muskuiluen ehun bigunen ur ehunekoan oinarritutako zuzenketa-faktore bat erabiliz (Potrykus et al., 2003).

Ehunetako aztarna metalen edukia

Laginketa gune eta urtaro bakoitzeko 20 muskuiluren taldekapena liofilizatu, homogeneizatu, pisatu (± 0,0001 g) eta Teflon estaldura zuten ontzietara transferitu ziren mikrouhin labean liseritzeko. Ontzi bakoitzean 2 ml HNO_3 (%69, Tracepur, Merck), 2 ml H_2O_2 (%30 Fluka, p.a.) eta 2 ml MilliQ ur (Millipore Element) gehitu ziren. Ontziak berogailu pasiboko zilindroan muntatu eta Teflon tapoiekin itxi ziren.

Mikrouhin labearen berotzeko programa aurrez optimizatuta zegoen eta potentzia programa bat jarraitu zuen (Anton Paar, Multiwave Pro). Lehen urratsa 600 W-ra igotzea izan zen 5 minututan eta hor 5 minutu gehiago mantentzea. Ondoren, potentzia 1000 W-ra arte handitu zen 5 minututan eta 5 minutuz mantendu zen. Azkenik, potentzia itzali (0 W) eta labea presurizatu egin zen lagina hozteko (15 min). Programa honetan ohiko presio eta tenperatura altuenak 20 bar eta 190^oC ingurukoak ziren eta ehun biologikoen liseriketa oso-osorik burutu zen. Errotoreak 8 laginen liseriketa ahalbidetzen zuen aldi berean, baina horietako bi sistematikoki “blank”-en analisirako gorde ziren.

Estraktua xiringa batera transferitu eta PVDF 0,45 µm-ko disko iragazkien bidez iragazi zen. Teflon estaldurako ontzi eta tapoi guztiak MilliQ urarekin garbitu eta modu

berean iragazi ziren. Azken disoluzioa zehatz-mehatz pisatutako Falcon hodietan prestatu zen eta MilliQ ura gehitu zen 50 ml arte. Azken Falcon hodiak pisatu ziren disoluzioaren masa zehatza lortzeko. Azkenik, disoluzio guztiak diluitu ziren, azken azidotasuna disoluzio estandarrenarekin bat etortzeko (% <1).

Analisi elementala ICP-MS bidez (NexIon200, Perkin Elmer) egin zen. Laginak ponpa peristaltiko bat erabiliz xurgatu ziren nebulizazio sistemara (Meinhard nebulizatzailea) eta, aldi berean, lerro paralelo baten bidez, barneko disoluzio estandarren fluxu jarraitua (Ge, Sc eta Y) nahastu eta neurtu zen neurketa erroreak gainditzeko. Isotopo hauek ^{7}Li, ^{27}Al, ^{88}Sr, ^{98}Mo, ^{107}Ag, ^{120}Sn, ^{121}Sb, ^{137}Ba, ^{184}W, ^{205}Tl eta $^{206+207+208}$Pb (Barne estandarrak: Sc, In eta Bi) neurtu ziren. ^{47}Ti, ^{51}V, ^{52}Cr, ^{55}Mn, ^{56}Fe, ^{59}Co, ^{60}Ni, ^{63}Cu, ^{66}Zn, ^{75}As, ^{78}Se ^{111}Cd eta ^{202}Hg (Barne estandarrak Sc, Y, Ge eta In) He talka modua erabili zen. Nahiz eta lan askotan metal multzo txikiagoa hartzen den kontuan, horiek guztiak hautatu ziren balizko markatzaile multzo zabal bati aurre egiteko eta dagoeneko laborategiko ohiko prozeduretan zeudelako (Rodriguez-Iruretagoiena et al., 2016).

Zelula adipogranularren indizea

Mantuko erreserbako energia materialaren adierazle gisa, adipogranular (ADG) zelula indizeak ugalketarekin eta urtaroko aldaketa bioenergetikoekin lotutako estrategia metabolikoaren iradokizun bat eman dezake (Bignell et al., 2008). Mantuko zelula adipogranularrek glukogenoa, lipidoak eta proteinak dituzte (Danton et al., 1996), eta zelula horien dentsitatea mantuko ehun germinalaren kantitatearen alderantziz proportzionala dela frogatu da (Moukrim et al., 2008). ADG zelulen dentsitatearen ebaluazioa Bignell et al. (2008)-ek deskribatutako moduan (n=20) egin zen. Honako kalifikazio sistema erabili zen:

- 0: ez dago ADG zelularik ehun konektibo besikularraren barruan.
- 1: ADG zelulak ikus daitezke baina eskasak dira.
- 2: ADG zelulak mantuan zehar sakabanatuta agertzen dira.
- 3: ADG zelulen ugaritasuna nabarmen handitu da, baina baliteke ehun eremu batzuek erabateko konsistentzia ez edukitzea.
- 4: ADG zelulek ehun konektiboaren bolumenaren gehiengoa osatzen dute.

Gametoen garapena

Gametoen garapen etapak prestaketa histologikoetan zehaztu ziren (n=10) Ortiz-Zarragoitia et al. (2011) -ek deskribatzen duten moduan: atseden-fasea (aktibitaterik gabe edo desberdindu gabea); hasierako fase gametogenikoa (gametogenesia hasi da baina ez dago gameto heldurik); etapa gametogeniko aurreratua (gametogenesia aurrera doa eta gameto helduek eta garatzen ari diren gametoek proportzio berdina dute); heldutasun etapa (gonada guztiz heldua, folikuluak obuluz edo espermatozoidez beteta); errute fasea (gametoen igorpen aktiboa, folikulu batzuk hutsik agertzen dira); errute osteko fasea (folikulu hutsak eta gametoa hondarrak bakarrik geratzen dira).

Biomarkatzaile biokimikoak

Kokapen eta sasoi bakoitzeko 15 muskuiluren liseri-guruinak 100 mM potasio fosfato tanponean homogeneizatu ziren (pH 7,4). Homogeneizatuaren laginak hartu ziren LPO analisirako eta % 4 BHT gehitu zen peroxidazioa inhibitzeko. Gainontzeko homogeneizatua 10.000 g-tan zentrifugatu zen 20 minutuz 4°C-tan eta gainnadanteak -80°C-tan gorde ziren aztertu arte.

Kokapen eta sasoi bakoitzeko 30 muskuiluren zakatzak homogeneizatu ziren % 0,1 Triton X (pH 7,0) duen 20 mM sodio fosfato buffer-etan eta 10 000 g-tan zentrifugatu 20 minutuz 4 °C-tan. Gainnadanteak -80 °C-tan gorde ziren aztertu arte.

Entzima-jarduera guztiak 96 putzuko plaketan neurtu ziren mikroplaka irakurgailu baten bidez (TECAN Infinite 200) eta Magellan softwarearekin (TECAN)

aztertu. Liseri-guruinen laginak GST, CAT eta LPO-rako aztertu ziren, eta brankietako laginak AChErako. Proteinen kontzentrazioa Bradford (1976) metodoaren bidez zehaztu zen behi-serum albuminaren estandar batekin (Sigma A7030).

GST jarduera, hidrokarburo aromatiko poliziklikoen (PAH) eta bifenilo polikloratuen (PCB), esposizio biomarkatzailea da, bai arrainetan bai ornogabeetan (Leiniö eta Lehtonen, 2005). Klorodinitrobentzeno-glutation (CDNB-GSH) substratu konjokatuaren eraketa tasa gisa neurtu zen 340 nm-tan, Habig et al-en arabera. (1974). Erreakzioan CDNB (Sigma-Aldrich 138630) eta GSH (Sigma-Aldrich G4251) 1 mM-ko kontzentrazioak 100 mM potasio fosfato tamponean, pH 7,0, erabili ziren.

CAT jarduera, adibidez metalen esposizioak eragindako estres oxidatiboaren adierazlea da eta uretako organismoetan ikertuak izan dira (bibalbioak barne) (Leiniö eta Lehtonen, 2005). Hidrogeno peroxidoaren (H2O2, Fluka 95302) degradazio gisa neurtu zen CAT 240 nm-tan (Claiborne, 1985). Erreakzioko H2O2-ren azken kontzentrazioa 4,3 uM izan da 100 mM potasio fosfato tamponean, pH 7,0.

LPO maila oxidazio kaltearen adierazle da (Shaw et al., 2004) eta azido tiobarbiturikoarekiko substantzia erreaktibo gisa neurtu zen 535 nm-tan (Ohkawa et al., 1979). Erreakzio nahasketak 60 mM Tris-HCl zituen azido dietilentriaminepentazetikoarekin (DTPA, Sigma-Aldrich D6518), 0,24 M azido trikloroacetikoarekin (Sigma-Aldrich T6399) eta 16 mM azido 2-tiobarbiturikoarekin (Sigma-Aldrich T55000) osatu zen.

AChE jarduerak metalak, detergenteak eta alga toxinak bezalako produktu kimikoekiko duen sentikortasuna onartua da eta estres neurotoxikoa adierazten du (Leiniö eta Lehtonen, 2005). AChE jarduera azetiltiokolinaren (ACTC) hidrolisia 412 nm-an neurtuz zehaztu zen (Bocquené eta Galgani, 1998). Erreakzio-nahasketak 0,57 mM azido 5,5'-ditiobis-2-nitrobenzoiko (DTNB, Sigma D8130) eta 2,9 mM azetiltiokolina ioduro (Sigma A5751) 20 mM sodio fosfato tamponean (pH 7,0) zituen.

Zelula mailako biomarkatzaileak

LMS eta LSC estres orokorraren biomarkatzaileak dira (Marigómez et al., 2006, Izagirre et al., 2008). LMS-aren zehaztapena UNEP/RAMOGE (1999) liseri-zelulen

lisosometan hexosaminidasa (Hex) aktibitatea frogatu ondoren tindatze intentsitate maximoa sortzeko beharrezkoa den labilizazio azido tratamenduaren denboran oinarritzen da. Prestakinak (talde bakoitzeko 10 liseri-guruin) 4 °C-tan jarri ziren 30 minutuz eta gero 10 minutuz giro tenperaturan mantendu ziren tindatu aurretik. Kriotomoan egindako ebaketa serialak (10 µm) 0, 3, 5, 10, 15, 20, 25, 30, 35 eta 40 minutuko tarteetan 0,1 M zitrato tanponean (pH 4,5 % 2,5 NaCl duen pH 4,5) egon ziren 37 °C-ko ur bainuan, mintz lisosomala guztiz labilizatzeko behar den aurretratamendu denbora ezagutzeko. Tratamendu honen ondoren, ebaketak substratuaren inkubazio-mediora transferitu ziren Hex jarduera ikusteko. Inkubazio medioa 20 mg naftol AS-BI-N-acetil-bD-glukosaminidaz (Sigma, N 4006) 2,5 ml 2-metoxietanoletan disolbatuak (Merck, 859), eta 50ml bolumen izan arte 0,1 M zitrato tampona gehituta (pH 4,5). Ondoren, % 2,5 NaCl eta 3,5 g biskositate baxuko polipeptido (Sigma, P5115) duen 0,1 M zitrato-tanpoia gehitu zen, sekzio egonkortzaile gisa jarduteko. Ebaketak medio honetan 20 minutuz 37 °C-tan inkubatu ziren, disoluzio gazi batean (% 3,0 NaCl), 37 °C-tan 2 minutuz garbitu eta gero 0,1 M fosfato tamponera pasa ziren giro tenperaturan 10 minutuz (pH 7,4) 1 mg/ml diazonio Fast Violet B gatza koloratzailea zuela (Sigma, F1631). Ondoren, prestakinak azkar garbitu ziren iturriko uretan 5 minutuz, 10 minutuz fixatu ziren % 2,5 NaCl zuen Baker-en kaltzio formolean 4 °C-tan eta ur destilatutan garbitu ziren. Azkenik, prestakinak Kaiser-en glizerina gelatinan muntatu ziren. Tindatze intentsitate maximoa lortzeko beharrezkoa den labilizazio azido tratamendu denbora argi mikroskopio bidez ebaluatu zen lisosomekin lotutako erreakzio produktuaren metaketa maximo gisa (UNEP/RAMOGE, 1999). Animalia bakoitzerako lau determinazio egin ziren labilizazio azido sekuentziako ebaketa bakoitza lau segmentu gutxi gorabehera berdinetan banatuz eta dagokion segmentu multzo bakoitzean labilizazio aldia ebaluatuz. Ondoren, atal bakoitzerako batez besteko balioa atera zen, liseri-guruin bati dagokiona.

β-glukuronidasaren jarduera histokimikoa fixatu gabeko kriotomo ebaketetan (10 liseri-guruin talde bakoitzeko) frogatu zen Moore (1976)-ek deskribatu bezala. Ebaketak (8 µm) CM3050 kriotomo batean moztu ziren -25 °C-ko ganbera tenperaturan, beirazko prestakin epeletan bildu eta -40 °C-tan gorde ziren tindatu arte. Ebaketak giro tenperaturan epeldu ziren 5 minutuz eta, ondoren, 0,96 ml sodio bikarbonatotan (50

mM) disolbatutako 22,4 mg naftol AS-BI-β-D-glukuronidoz osatutako substratuaren inkubazio mediora transferitu eta 80 ml osatu ziren 0,1 M azetato tamponarekin (pH 4,5) % 2,5 NaCl eta 12 g polibinilo dituena, % 20 (w/v) kontzentrazioan koloide egonkortzaile gisa. Ebaketak 20 minutuz inkubatu ziren 37 °C-tko ur bainu batean, etengabeko agitazioarekin. Ondoren, prestakinak %2,5 NaCl-tan garbitu ziren 37 °C-tan 2 minutuz eta giro tenperaturan tindatu ziren 10 minutuz iluntasunean, 1 mg/ml fast garnet GBC 0,1 M fosfato tamponean (pH 7,4) % 2,5 NaCl-rekin. Ondoren, ebaketak Baker-en kaltzio formolean fixatu ziren (% 4 formaldehidoan, % 1 kaltzio kloruroan, % 2,5 sodio kloruroan) 10 minutuz 4 ° C-tan eta ur destilatutan garbitu. Azkenik, ebaketak astiro-astiro garbitu ziren ur destilatutan eta Kaiser-en gelatinan muntatu ziren.

Muskuiluetan liseri-zelulen lisosomen egitura kuantifikatzeko prozedura estereologiko bat aplikatu zen, irudiak aztertzeko sistema bat erabiliz. Sistema B&W-CCD bideokamerak, Leitz Laborlux argi-mikroskopioak, bideo plaka duen ordenagailuak eta BMS softwareak osatzen dute. 100× handipeneko objektiboa erabili zen. Liseri-zelulen zitoplasmatik lisosomak bereizten dituzten irudi bitarrak segmentazio prozeduraren bidez lortu ziren. Irudien analisi sistemarekin bolumen dentsitate lisosomikoa (Vv_{LYS}), gainazal bolumen erlazio lisosomikoa (S/V_{LYS}) eta zenbakizko dentsitate lisosomikoa (Nv_{LYS}) lortu ziren. Bost neurketa egin ziren liseri-guruin bakoitzeko. Formula estereologikoek zuzenketa faktore bat barne hartzen dute ebaketaren lodiera baino batez besteko diametro txikiagoa duten partikulen kasuan (Lowe et al., 1981). Laginaren tamaina lau parametroen batez besteko eta desbideratze estandarraren balioen aurretiko analisietan oinarrituta zehaztu zen, gutxienez 16.000 μm^2 baino gehiagoko laginketa eremu batean konstante mantentzea lortu zutenak (Etxeberria et al., 1994). Neurketa bakoitzean eskaneatutako liseri-zelulen azalera osoa 4.000 μm^2 ingurukoa zenez, 5 neurketa egin ziren ebaketa bakarrean (muskuilu bakoitzeko laginketa eremu osoa 20.000 μm^2).

Lipofuszinak lipidoen peroxidazioaren edo liseriketaren azken produktutzat hartzen dira (Cheung et al., 2001). Era berean, moluskuen liseri-guruinean lipofuszina-kontzentrazioaren igoera kalte oxidatiboarekin (Viarengo et al., 1991) eta elikagaien urritasunarekin (Benito et al., 2017) lotu da. Schmorl metodoa (Pearse, 1985) erabili zen lipofuszinak detektatzeko. Ebaketak (8 µm) CM3050S Leica kriotomo batean moztu ziren

-25 °C-ko ganbera tenperaturan, beirazko prestakin epeletan bildu eta -40 °C-tan gorde ziren tindatzeko behar izan arte. Gertakinak (talde bakoitzeko 10 liseri-guruin) %2,5 NaCl zuen Baker-en kaltzio formolean fixatu ziren 15 minutuz 4 °C-tan. Ebaketak ur destilatutan garbitu ondoren, % 1 kloruro ferrikoa eta % 1 potasio ferrizanuroa 3:1 proportzioan zituen erreakzio medioan murgildu ziren 5 minutuz. Ondoren, ebaketak % 1-eko azido azetikotan garbitu ziren minutu batez. Azkenik, ebaketak ur destilatutan garbitu eta Kaiser-en glizerina gelatinarekin muntatu ziren. Vv_{LPF} zitosolaren bolumen-dentsitateariko kuantifikatu zen BMS softwarea erabiliz liseri-zelulen lisosomen egitura kuantifikatzeko, lehenago azaldu bezala, x40 handitze objektiboa erabiliz. Vv_{LPF} lipofuszinen bolumenaren eta zitosolaren bolumenaren arteko erlazioa ($Vv_{LPF} = V_{LPF}/V_C$) kalkulatu zen, non V_{LPF} = lipofuszinen bolumena eta V_C = zitosolaren bolumena.

Liseri-guruinean lipido neutroen (NL) metaketa xenobiotiko organikoen esposizioarekin, estres ez espezifikoarekin eta elikadura egoerarekin erlazionatu da (Cancio et al., 1999, Marigómez eta Baybay-Villacorta, 2003, Shaw et al., 2011). NL edukiaren zehaztapena liseri-guruinetako 8 µm-ko lodierako ebaketa izoztuetan egin zen (n=10), kriostatoan lortutako -25°C-ko ganberako tenperaturan. Prestakinak -40 °C-tan gorde ziren eta Lillie eta Ashburn-en Oil Red O (ORO) metodoa jarraituz tindatu ziren (Culling, 1974). NL edukia ehun konektiboarekiko BMS softwarea erabiliz neurtu zen (lehenago deskribatuta), x40 handitze objektiboa erabiliz. Vv_{NL} lipido neutroen bolumenaren eta ehun konektiboaren bolumenaren arteko erlazio gisa kalkulatu da $Vv_{NL} = V_{NL}/V_{CT}$, non V_{NL} = lipido neutroen bolumena eta V_{CT} = ehun konektiboaren bolumena (Marigomez eta Baybay-Villacorta, 2003).

Ehun mailako biomarkatzaileak eta histopatología

Parafina ebaketak (5 µm) hematoxilina-eosinaz (H/E) tindatu ziren, liseri-guruinaren, gonadaren eta zakatzen osotasuna aztertzeko.

Vv_{BAS} estres orokorreko biomarkatzaile bat da, moluskuen liseri-albeoloetan estres baldintzetan ematen den zelula basofiloen hazkunde erlatiboa neurtzen duena (Zorita et al., 2006, Rementeria et al., 2016, Benito et al., 2017).

CTD ratio altu batek moluskuen liseri-guruinaren osotasunaren galera adierazten du, eta estres kimikoak edo elikadura egoera eskasak eragin dezake (Mújica et al., 2015b, Benito et al., 2017).

Biak, Vv_{BAS} eta CTD, estereologiaren bidez kuantifikatu ziren (n=10) zelula-mota osaeran, liseri-epitelioaren batez besteko lodieran eta ehun konektibo kopuruan aldaketak gertatu diren edo ez adierazteko. Ausaz aukeratutako hiru eremutan zenbaketak egin ziren liseri-guruinen prestakin batean muskuilu bakoitzeko (10 muskuilu talde bakoitzeko). Gertakinak 40× objektiboan behatu ziren (handitzea totala ~ 400×) argi-mikroskopio bati loturiko marrazketa-hodi bat erabiliz. M-168 Weibel gratikula erabilera anitzeko sistemaren (Weibel, 1979) bertsio sinplifikatu bat erabili zen, eta zelula basofiloak (b), liseri-zelulak (d), lumen dibertikularrak (l) eta ehun konektibo interstiziala (c) erregistratu ziren. Vv_{BAS} Delesseren printzipioaren arabera kalkulatu zen (Weibel, 1979), $Vv_{BAS}=V_{BAS}/V_{EP}$ gisa, non V_{BAS} zelula basofiloen bolumena den eta V_{EP} liseri-guruinen epitelioaren bolumena den. CTD ratioa CTD = c/(b + d + l) gisa kalkulatu zen.

Atrofia indize gisa neurtutako muskuiluen liseri-albeoloen mehetze epiteliala estres orokorraren adierazgarri izan daiteke (Kim et al., 2006, Garmendia et al., 2011). Liseri-albeoloen atrofia indizearen larritasuna 0tik 4rako (n=20) zenbakizko kalifikazioa erabiliz baloratu zen Kim et al. (2006)-ek deskribatutako moduan:

- 0: lumen ia ikusezina duten dibertikulu normalak.
- 1: epitelioaren lodiera normalaren erdia baino handiagoa duten hodiak. Hodi normalak eta partzialki atrofiatuak batera agertzen dira.
- 2: liseri-epitelioaren lodiera normalaren erdia.
- 3: hodi nabarmen atrofiatua, liseri-epitelioaren lodiera normalaren erdia baino gutxiagorekin.
- 4: liseri-epitelio oso meheak, ia hodi guztiak kaltetuta.

Analisi histopatologikoei dagokienez, laginketa kanpaina bakoitzeko 20 muskuiluren gertakinak banan-banan aztertu ziren argi-mikroskopioan 10×, 20× edo 40× objektiboekin. Puntuazio kuantitatiboak egin ziren (emaitzak ez dira erakusten) intzidentziaren zenbaketa mantenduz, gertakina eskaneatu ahala, gertakari bakoitza

behin baino gehiagotan aztertzea ekiditeko. Parasito digeneoen, MPX zelula barneko ziliatuen eta *Rickettsia* bezalako organismoen prebalentzia aztertu zen. Horrez gain, zenbait ehun egoeraren prebalentzia aztertu zen, infiltrazio hemozitikoaren kasuak barne, fokatua eta difusoa bereizi gabe, granulozitomak eta zelula arreen (gorputz zeroideak edo pigmentu-zelulak) agregatuak eta atresia folikularra ere aztertu ziren.

Biomarkatzaileen erantzun integratuaren indizea (IBR/n)

IBR indizea bost erantzun biologikoren integrazioan oinarritu zen, biokimikotik ehun mailara (CAT, LPO, Vv_{NL}, Vv_{BAS} eta CTD), erantzunak antolakuntza biologiko ezberdinetan irudikatzeko, Beliaeff eta Burgeot (2002), Broeg eta Lehtonen (2006) eta Marigómez et al. (2013)-en arabera. Kalkuluak aldagai anitzeko metodo grafiko batean oinarritu ziren, prozedura honen arabera: (1) lagin bakoitzaren batez bestekoa eta desbideratze estandarraren kalkulua; (2) lagin bakoitzaren datuen estandarizazioa: $x_i' = (x_i-x)/s$; non, x_i' = biomarkatzailearen balio estandarizatua; x_i = lagin bakoitzeko biomarkatzaile baten batez besteko balioa; x = x_i-ren batez besteko balio orokorra, alderatutako lagin guztietatik kalkulatua; s = x_i-ren desbideratze estandarra, lagin guztietatik kalkulatua; (3) lagin bakoitzeko lortutako balio estandarizatua datu multzoko gutxieneko balio estandarizatu absolutuari gehitzea: $y_i = x_i' + |x_{min}'|$; (4) radar grafikoaren eremu triangeluarrak kalkulatzea $A_i = (0,59 \times (y_i \times y_i+1)/2$, non ''$y_i$'' eta ''$y_i$+1'' biomarkatzaile bakoitzaren eta hurrengoaren balio estandarizatuak baitziren. Izar grafikoan 0,59 sin α da (α: angelu erradiala izar grafiko pentagonal baterako; $\alpha=2\pi/5$); eta (5) IBR indizearen kalkulua Irudikatutako eremu triangeluarren guztien batuketa dena ($IBR=\Sigma A_i$) (Beliaeff eta Burgeot, 2002). IBR balioa datu multzoko biomarkatzaile kopuruaren menpe zuzenean dagoenez, lortutako IBR balioa IBR/n kalkulatzeko erabilitako biomarkatzaile kopuruarekin zatitu zen (Broeg eta Lehtonen, 2006).

Analisi estatistikoak

Analisi estatistikoa SPSS/PC+ V.24 pakete estatistikoaren laguntzaz egin zen. (SPSS Inc., Microsoft Co.). Normaltasun frogak gainditu zituzten datu kuantitatiboetarako, norabide bakarreko ANOVA eta ondorengo Duncan-en post-hoc

proba aplikatu ziren batez besteko balioen bikoteen arteko konparazio anitzak egiteko ($p < 0,05$). Lortutako emaitza erdikuantitatiboetarako eta normaltasun frogak gainditu ez zituzten emaitza kuantitatiboetarako, Kruskal Wallis-en froba ez parametrikoak egin ziren laginketa guneen eta urtaroen arteko bariantzak alderatuz ($p<0,05$). Ehun bigunen eduki kimikoa, alterazio histopatologikoen prebalentzia eta IBR/n balioak laginketa gune eta urtaroen artean alderatzeko, Z-score erabili zen ($p<0,05$). Sateliteen datuak R sistema erabiliz prozesatu ziren (R Core Team, 2018).

EMAITZAK

Ingurugiro faktoreen urrutiko detekzioa

SST neurketek Kielen (2A. irud.) eta Tvärminnen (2B. irudia) udan tenperaturak antzekoak zirela erakutsi zuten. 2016ko udako laginketa baino hilabete lehenago, tenperaturak egonkorrak izan ziren Kielen. Tvärminnen SST oraindik bilketa aurreko hilabetean igotzen ari zen. Kielen udazkeneko laginketa Tvärminneko udazkeneko laginketa baino tenperatura baxuagoak zirenean egin zen. 2017ko udaberrian Kiel-en SST apur bat handiagoa izan zen eta jada handitu egin zen muskuiluak bildu zirenean, baina Tvärminnen oraindik ez zen nabarmen igotzen ari laginketa garaian.

Udan, muskuilu bilketaren aurreko egunetan chl-a kontzentrazioa baxua zen Kielen (serie historikoan baino zertxobait baxuagoa) (2C. irudia), Tvärminnen, berriz, udako laginketak chl-a kontzentrazio altuko aldi jarraitu baten ondoren egin ziren (altuak sasoiko balio tipikoekin alderatuta) (2D. irudia). Kielen, chl-a kontzentrazioen sasoiko gailurra udazkenean erregistratu zen, eta Tvärminnen, berriz, udazkeneko laginketa baino lehen. Udaberriko laginketan, Kielen chl-a-ren gorakada izugarria erregistratu zen, aldi honetako balioak 17 urteko errekorretik eratorritako urtaro ziklo leundukoak baino handiagoak izan ziren. Tvärminne-n, udaberriko laginketak urteko lehen chl-a gailurrean egin ziren.

Kielen, udan POC kontzentrazioa urte anitzeko urtaro zikloaren arabera normalean erregistratutakoa baino txikiagoa izan zen (2E. irudia). Tvärminne-n urteko garai berean erregistratu ohi zirenen antzekoak ziren (2F. irudia). Kielen, POC mailen igoera gertatu zen udazkenean, eta Tvärminnen, udazkeneko laginketa baino lehen igoera txiki bat ikusi ahal izan zen. Kielen POC mailarik altuenak udaberriko laginketatik gertu ikusi ziren eta urtaro leunduko zikloaren balioak baino askoz ere altuagoak izan ziren. Tvärminne-n, udaberrian muskuilu bilketaren garaian POC kontzentrazio gailur bat antzeman zen, urte gehienetan ikus daitekeen gailurra baino apur bat lehenago.



2. Irudia Bi urteetako urrutitik detektatutako datuen grafikoak. Itsaso gainazaleko tenperatura (SST) (Kiel A, Tvärminne B), a-klorofila kontzentrazioa (Chl-a) (Kiel C, Tvärminne D) eta karbono organiko partikulatua (POC) (Kiel E, Tvärminne F). marra laranjak (A, C, E) eta moreak (B, D, F) azken 17 urteetako eguneko batez besteko urtaroko ziklo leunduak irudikatzen dituzte, eta lerro bertikal ez jarraiek laginketak noiz egin ziren.

Ehunetako PAH edukia

PAH bakarren ehunen edukia gehienetan konposatuen detekzio mugetatik behera edo oso gertu zegoen (1. taula). Kontzentrazio handienak aurkezten zituzten PAH-ak fluorantenoa eta pirenoa izan ziren, nahiz eta baliorik altuenak ez ziren estatistikoki desberdinak izan kontzentrazio baxuagoak erakusten zituzten laginekin alderatuta. Neurtutako 15 PAH-en batura nabarmen handiagoa izan zen Kielen udazkenean bildutako muskuiluetan gainerako laginekin alderatuta.

1. Taula: *Mytilus trossulus*-en ehunetan aurkitutako PAH kontzentrazioak (µg/kg pisu lehorra). Asteriskoek desberdintasun esangarriak adierazten dituzte ($p < 0.05$). DM, detekzio muga. -, detekzio mugaren azpitik

	DM	Kiel Uda	Kiel Udazkena	Kiel Udaberria	Tvärminne Uda	Tvärminne Udazkena	Tvärminne Udaberria
Anthracene	9	-	-	-	-	-	-
Acenaphtene	9	-	-	-	-	-	-
Acenaphtylene	9	-	-	-	-	-	-
Benz(a)anthracene	18	-	18.9	-	-	-	-
Benzo(a)pyrene	18	-		-	-	-	-
Benzo(b)fluoranthene	18	-	22.5	-	-	-	-
Benzo(ghi)perylene	18	-	-	-	-	-	-
Benzo(k)fluoranthene	18	-	-	-	-	-	-
Dibenz(a,h)anthracene	18	-	-	-	-	-	-
Phenantrene	9	-	18	11.7		-	-
Fluoranthene	9	17.1	63.9	36	9.9	-	14.4
Fluorene	9	-	-	-	-	-	-
Indeno(1,2,3-cd) pyrene	18	-	-	-	-	-	-
Chrysene	18	-	-	-	-	-	-
Pyrene	18	15.3	48.6	22.5	-	-	12.6
∑PAHs		32.4	171.9*	70.2	9.9	-	45

Ehunetako aztarna metalen edukia

Ehunen aztarna metalen kontzentrazio batzuek desberdintasun nabarmenak erakutsi zituzten taldeen artean (2. taula). Udan bildutako Kiel-eko muskuiluak Hg, Zn eta Mn kontzentrazio nabarmen handiagoak zituzten gainerako taldeekin alderatuta.

2. Taula: *Mytilus trossulus*-en ehunetako metalen kontzentrazioa (µg/g pisu lehorra). Asteriskoek desberdintasun esangarriak adierazten dituzte ($p < 0.05$).

	Kiel Uda	Kiel Udazkena	Kiel Udaberria	Tvärminne Uda	Tvärminne Udazkena	Tvärminne Udaberria
Li	0.36	0.28	0.37	0.27	0.22	0.09*
Al	44.63	52.58	37.67	113.10*	81.36	30.18
Sr	23.69	18.35	26.35	50.54*	37.98	26.27
Mo	0.46	0.48	0.47	0.58	0.60	0.39
Ag	0.03	0.02	0.02	0.05	0.06	0.04
Sn	0.17	0.22	0.11	0.08	0.037	0.01
Sb	0.02	0.03	0.02	0.02	0.01	0.01
Ba	10.75	6.39	2.07	8.87	5.86	3.35
W	0.03	0.03	0.02	0.04*	0.09	0.02
Hg	0.31*	0.19	0.22	0.20	0.16	0.11
Tl	0.01	0.01	0.01	0.01	0.01	0.01
Pb	1.53	0.98	1.11	0.70	0.61	0.41
Ti	10.96	10.52	13.77	19.78	17.64	10.86
Co	0.43	0.26	0.25	0.49	0.41	0.27
Cu	8.25	6.43	6.66	8.08	6.94	6.67
Zn	121.40*	92.22	96.28	76.82	89.17	69.64
As	5.50	5.49	7.47	9.60	9.37	6.08
Cd	0.63	0.48	0.47	1.21	1.00	0.59
V	0.51	0.83	0.58	0.48	0.53	0.18
Cr	0.45	0.41	0.41	0.91	0.78	0.40
Mn	114.52*	27.54	25.33	53.34	27.98	22.88
Fe	211.08	219.52	160.75	312.49	288.30	155.43
Ni	2.13	1.32	0.92	2.39	2.14	1.31
Se	2.29	2.11	2.17	2.11	2.02	1.85

Zelula adipogranularren indizea

Zelula adipogranularren indizeak ez zuen desberdintasun esangarririk erakutsi laginketa tokien artean, baina baliorik altuena udazkenean neurtu zen eta baxuena udaberrian (3A. irudia).

Gametoen garapen etapetan desberdintasunak agertu ziren urtaro eta laginketa guneari dagokienez. Kiel-en udan, muskuiluen erdia errute ondorengo fasean zegoen (3I. irudia), eta aztertutako muskuiluen % 33-k gametogenesi goiztiarra erakusten zuen, % 11-k gameto ez desberdinduak (3D. irudia) eta % 5 fase gametogeniko aurreratuan zeuden. Udazkenean bildutako muskuilu geihenak egoera gametogeniko goiztiar batean zeuden (% 90), eta, neurri txikiagoan, gametogenesi aurreratuan (% 10). Udaberrian muskuilu gehienak gametogenesi egoera aurreratuan zeuden (% 80) (3B, 3F irudiak), eta batzuk gametogenesiaren hasierako fasea (% 10) (3E. irudia) edo gameto helduak (% 10) erakusten zituzten (3G. irudia). Tvärminne-n (3C. irudia) udan, muskuiluen % 44 egoera gametogeniko aurreratuan zegoen eta beste % 44k gameto helduak erakusten zituen eta azken % 11 errute fasean zegoen (3H. irudia). Udazkenean muskuiluen zatirik handiena (% 58) fase gametogeniko aurreratuan zegoen, % 31k errute fasea erakusten zuen eta % 10 gametogenesi goiztiarrean zeuden. Udaberrian muskuilu gehienak egoera gametogeniko aurreratuan zeuden (% 95), eta gainerakoek gametogenesi goiztiarrean (% 5).



3. Irudia: *Mytilus trossulus*-en mantuan zelula adipogranularren indizea erakusten duen grafikoa (n=20) (A), barrek errore estandarra eta letrek urtaroen arteko desberdintasun estatistikoak irudikatzen dituzte (p<0.05). B-k Kiel-eko muskuiluen gonadaren garapenaren etapen portzentaiak erakusten ditu eta C-k Tvärminne-koak (n=20). Gonada ebaketa desberdinen detaileak (haematoxylina-eosinaz tindatuak). D, gameto ez diferentziatuak; E, gametogenesi goiztiarra (emea); F, gametogenesi aurreratua (emea); G, gameto helduak (arra); H, errute fasea eta I, errute osteko fasea.

Muskuiluen zakatzetan neurtutako AChE jarduerak ez zuen desberdintasun estatistikorik erakutsi bi tokien artean (4A. irudia). Hala ere, udaberrian lortutako balioak udan eta udazkenean neurtutakoak baino nabarmen baxuagoak izan ziren bi lekuetan. Liseri-guruinean CAT jarduerak alde nabarmenak erakutsi zituen tokien eta urtaroen artean (4B. irudia). Kiel-eko muskuiluek udaberrian izan zuten jarduerarik handiena eta udan baxuena. Udazkenean CAT jarduerak gora egin zuen berriro, tarteko balioetara iritsiz. Tvärminne-n, CAT batez besteko jarduerarik handiena udan neurtu zen eta baxuena udazkenean, tarteko balioak udaberriko laginetan erregistratu zirelarik. Kiel-eko muskuiluen liseri-guruinean GST jarduera altuena udaberrian izan zen, desbertinasuna estatistikoki esanguratsua izanik udako eta udazkeneko balioekin konparatzerakoan eta Tvärminne-n udaberrian bildutako muskuiluetan neurtutakoekin alderatuta (4C. irudia). Tvärminne-ko muskuiluetan GST jarduerarik handiena udan neurtu zen, estatistikoki esanguratsua izanik desberdintasuna udaberriko eta udazkeneko mailekin konparatzerakoan eta Kielen udan bildutako muskuiluekin alderatuta.

LPO mailak nabarmen handiagoak ziren bi lekuetan udazkenean, Tvärminne-n udan lagindutako muskuiluek tarteko balioak erakusten zituzten bitartean (4D. irudia). Lekuen artean ez zen desberdintasun esanguratsurik aurkitu LPO mailen artean.



4. Irudia: A, Azetilkolinesterasa jarduera zakatzetan (n = 30) eta B, katalasa jarduera (n = 15); C, Glutation S-transferasa jarduera (n = 15) eta D, lipidoen peroxidazio mailak (n = 15) liseri-guruinean. Barrek errore estandarra irudikatzen dute; letrek urtaroen arteko desberdintasun estatistikoak irudikatzen dituzte eta asteriskoek urtaro berdinean lekuen arteko desberdintasun estatistikoak ($p < 0.05$).

Zelula-mailako biomarkatzaileak

Muskuiluen liseri-guruinean lipofuszina edukiak desberdintasun nabarmenak erakutsi zituen hiru urtaroen artean bi laginketa guneetan (5A. irudia). Kiel-en kasuan udazkenean bildutako muskuiluetan neurtu ziren baliorik altuenak, udaberrian bitarteko balioak neurtu ziren eta udan baxuenak. Tvärminne-n udaberrian ikusi zen lipofuszina eduki esanguratsuena. Leku honetan ez zen udan eta udazkenean bildutako muskuiluen

arteko alderik antzeman. Lipido neutroen edukiari buruzko desberdintasun estatistikorik ez zen antzeman laginketa lekuen eta urtaroen artean (5B. irudia). Udaberriko laginetako lisosomen neurketak ezin izan dira fidagarritasunez egin tindaketa kalitate eskasa eta lipofuszina itxurako granuluak sortutako interferentziak direla eta. Egonkortasun lisosomiko probak ez zuen alde handirik erakutsi urtaroen edo tokien artean (5C. irudia). Bolumen dentsitate lisosomikoak ez zuen Kiel-en edo Tvärminne-n desberdintasun handirik erakutsi udako eta udazkeneko laginen artean, nahiz eta balioak nabarmen handiagoak izan udazkenean Kiel-en Tvärminne-rekin alderatuta (5D. irudia). Azalera/bolumen erlazio lisosomikoak udatik udazkenera jaitsiera nabarmena izan zuen Kiel-eko muskuiluetan, eta Tvärminne-ko laginetan ez zen urtaroen arteko alde nabarmenik ikusi (5E. irudia). Kiel-en ratioa nabarmen handiagoa izan zen udazkenean Tvärminne-ko muskuiluekin alderatuta. Ez zen desberdintasun esanguratsurik aurkitu urtaroen eta tokien arteko zenbaki dentsitate lisosomikoan (5F. irudia).



5. Irudia: : A, Liseri-zeluletan metatutako lipofuszinen kontzentrazioa B, liseri-zeluletan metatutako lipido neutroen metaketa. C, egonkortasun lisosomikoaren testaren batez bestekoak eta hurrengo emaitzak erakusten dituzten kutxa diagramak: D, bolumen dentsitate lisosomikoa; E, azalera/bolumen erlazio lisosomikoa eta F, dentsitate numeriko lisosomikoa (n = 10). C grafikoan barrek errore estandarra irudikatzen dute, letrek urtaroen arteko desberdintasun estatistikoak eta asteriskoek urtaro berean lekuen artekoak ($p < 0.05$).

Zelula basofiloen bolumen dentsitateak ez zuen urtaro arteko aldakortasunik erakutsi (6A. irudia). Hala ere, udaberriko eta udako laginetan Kiel-eko muskuiluetan neurtutako balioak Tvärminne-koetan baino nabarmen handiagoak ziren. Atrofia indizeak ez zuen sasoiko eredurik erakutsi Kiel-en, eta Tvärminne-n, berriz, udaberrian bildutako muskuiluek atrofia maila nabarmen txikiagoa zuten udako eta udazkeneko laginekin alderatuta (6B. irudia). Tokien arteko desberdintasun estatistiko esanguratsu bakarrak udazkenean aurkitu ziren Tvärminne-ko muskuiluek Kiel-ekin alderatuta atrofia maila handiagoa zutelarik. Ehun konektibo eta liseri-ehunen arteko erlazioa (CTD) ez zen nabarmen aldatu Kiel-en urtaroen artean (6C. irudia), baina Tvärminne-n muskuiluek CTD nabarmen txikiagoa izan zuten udaberrian uda eta udazkenarekin alderatuta. Udaberrian CTD ratioa nabarmen handiagoa izan zen Kiel-en Tvärminne-rekin alderatuta.



6. Irudia: A, zelula basofilikoen bolumen dentsitatea (n =10); B, atrofia indizea (n =20) eta C, ehun konektibo eta liseri-ehunen arteko erratioa (n =10). Barrek errore estandarra irudikatzen dute, letra desberdinek urtaroen arteko desberdintasun estatistikoak irudikatzen dituzte eta asteriskoek urtaro berdinean lekuen arteko desberdintasun estatistikoak irudikatzen dituzte ($p<0.05$) eta mikrografiak (haematoxylina-eosinaz tindatuta) *Mytilus trossulus* liseri-ehunak erakusten: D, parasito digeneo bat; E, MPX zelula barneko ziliatua and F, *Rickettsia* itxurako organismoa. DP, parasito digeneoa; geziak, MPX ziliatuak eta triangeluak Rickettsia itxurako organismoa.

Aurkitutako patologiak hanturazko erantzunekin (zelula hemozitiko eta arreen infiltrazioekin), granulozitomekin eta obozitoen atresiarekin erlazionatuta zeuden. Aurkitutako parasitoak digeneoak eta MPX zelula barneko ziliatuak ziren (3. taula). Tvärminne-ko muskuiluetan infiltrazio hemozitikoak aurkitu ziren udaberrian (banakoen % 85), udan (% 70) eta udazkenean (% 80). Kiel-en infiltrazio hemozitikoen prebalentzia handiena udan detektatu zen (% 55). Laginketa tokien eta urtaroen artean ez zen desberdintasun estatistiko esanguratsurik ikusi. Liseri-ehunean zelula arreen infiltrazioen prebalentzia nabarmen handiagoa izan zen udaberrian Tvärminne-ko muskuiluetan (% 70), prebalentzia baxua izan zelarik beste lagin guztietan (% 0-25). Gonada ehunetan zelula marroien infiltrazioaren prebalentzia nabarmen handiagoa izan zen Tvärminne-ko muskuiluetan (% 80) udan, beste bi urtaroetan prebalentzia txikiagoak izan ziren (udaberria % 45, udazkena % 0). Kiel-en prebalentzia oso baxuak izan ziren orokorrean (udaberria % 0, uda % 10 eta udazkena % 5).

Granulozitomak Tvärminne-n udaberriko laginetan bakarrik ikusi ziren (% 20). Kielen obozitoen atresiaren prebalentzia handiena udaberrian izan zen (% 90), eta jaitsi egin zen udan (% 13) eta udazkenean (% 7). Tvärminne-ko muskuiluak udaberrian (% 100) izan zuen prebalentziarik handiena, eta udan (% 87) eta udazkenean (% 61) balioak baxuagoak izan ziren arren, aldeak ez ziren estatistikoki esanguratsuak tokiak eta urtaroak alderatuz gero.

Parasitoen agerpena orokorrean baxua izan zen bi azterketa guneetan. Parasito digeneoak zertxobait ohikoagoak ziren Kiel-en (udaberrian % 10, udan % 14 eta udazkenean % 5) Tvärminne-n baino (udaberrian % 5, udan eta udazkenean % 0) (6D. irudia). MPX ziliatuen infekzio intentsitateak ehun ebaketa bakoitzeko 50 indibiduotik beherakoak izan ziren beti (6E. irudia). MPX prebalentzia baxua zen Kiel-en (udaberrian eta udan % 5, udazkenean % 10), Tvärminne-n, berriz, udaberrian baino ez ziren aurkitu prebalentzia nabarmen handiagoarekin (% 26). Liseri-guruinean *Rickettsia* antzeko organismoak (RLO) ez ziren aurkitu Kiel-en, Tvärminne-n haien prebalentzia oso baxua zen (udaberrian % 5, udan % 10en eta udazkenean % 5en) eta urtaroen aldeak ez ziren esanguratsuak izan (6F. irudia). Ebaketa bakarrean RLO kopururik handiena 14 izan zen.

3. Taula: Hurrengo patologia eta parasitoen prebalentziak (%): infiltrazio hemozitikoa, liseri-guruinean eta gonadan aurkitutako zelula arreen infiltrazioak, granulozitomak, obozitoen atresia, parasito digeneoak, MPX ziliatuak eta *Rickettsia* antzeko organismoak liseri-guruinean (n=20). Asteriskoak taldeen arteko desberdintasun estatistikoak irudikatzen ditu (p<0.05). LG: Liseri-guruina, GO: Gonada.

	Kiel Uda	Kiel Udazkena	Kiel Udaberria	Tvärminne Uda	Tvärminne Udazkena	Tvärminne Udaberria
Inf. hemozitikoa	55	25	10	70	80	85
Zelula arreak (LG)	25	15	5	0	0	70*
Zelula arreak (GO)	10	5	0	80*	0	45
Granulozitomak	0	0	0	0	0	20*
Atresia	13.33	6.67	90	87.5	61.54	100
Par. Digeneoak	14.29	5	10	0	0	5
MPX	5	10	5	0	0	26.32*
RLO (LG)	0	0	0	10	5	5

Biomarkatzaileen erantzun integratuaren indizea (IBR/n)

IBR-rako hautatutako biomarkatzaileak honako hauek izan dira: CAT jarduera (estres oxidatiboaren defentsak) eta LPO mailak (kalte oxidatiboa) liseri-guruinean maila biokimikoan; Vv_{NL} liseri-zeluletan maila azpi-zelularrean; Vv_{BAS} maila zelularrean eta CTD ratioa ehun mailako biomarkatzaile gisa. Biomarkatzaile hauek antolakuntza maila eta funtzio biologiko desberdinak adierazten dituztelako aukeratu dira eta ikerketa honetan neurtutako erantzun biologikoen ikuspegi holistiko laburtua lortzeko aukera ematen dutelako. Erantzun biologikoko bost parametroek irudikatutako sei profilek urtaroko eta denborazko aldakortasuna erakusten zuten izar edo radar grafikoetan (7. irudia). CAT, Vv_{BAS} eta CTD-ek udaberrian lagindutako Kiel-eko muskuiluetan izan zuten erantzun handiena, eta IBR/n baliorik altuena lortu zuten, estatistikoki besteekiko desberdina izanik. Orokorrean, hautatutako biomarkatzaileetan erantzun maila baxuenak Tvärminne-n neurtu ziren udaberrian, beraz, IBR/n balioa baxuena da. Bi lekuetan udan lagintzen diren muskuiluek, orokorrean, erantzun maila ertaina erakusten dute. Kiel-en

udazkenean bildutako muskuiluetan Vv_{NL} erantzuna handiagoa da, CTD erantzuna udaberriko muskuiluetan bezain handia da eta IBR/n balioa Kiel-en udako eta Tvärminne-ko udazkeneko balioak baino handiagoa da, nahiz eta aldeak estatistikoki esanguratsuak ez izan. Udazkenean lagindutako Tvärminne-ko muskuiluek LPO erantzun handiena izan zuten, gainerako biomarkatzaileek tarteko erantzunak erakusten dituzte eta IBR/n balioa udan Tvärminne-n bildutako muskuiluen antzekoa da.



7. Irudia: A, Biomarkatzaileen izar grafikoak eta B, IBR/n indizea Kiel udaberrian, udan eta udazkenean eta Tvärminne udaberrian, udan eta udazkenean. Letrek taldeen arteko desberdintasun estatistikoak irudikatzen dituzte ($p<0.05$). CAT, katalasa jarduera; LPO, lipidoen peroxidazioa; Vv_{NL}, liseri-guruinean metatutako lipido neutroen kontzentrazioa; Vv_{BAS}, zelula basofiloen bolumen dentsitatea; CTD, ehun konektibo eta liseri-ehunen arteko proportzioa.

EZTABAIDA

Itsaso Baltikoko ingurugiro faktoreak (tenperatura eta gazitasunak, besteak beste) oso aldakorrak dira denbora eta espazioan, biomarkatzaileen erantzunetan eragina izan dezakeena. Horregatik, aldagai fisiko kimiko eta ekologiko desberdinak teledetekzioaren bidez neurtzeak (Frouin et al., 1989, Stramski et al., 2008, Hu et al., 2012, Kilpatrick et al., 2015) abantaila logistiko bat eman dezake informazioa biltzeko aldagai ekologikoen laginketa edota neurketa osagarrien beharrik gabe. Hala ere, kontuan hartu behar da sateliteen datuek aztertutako aldagaien eskualde ezaugarriak soilik irudika ditzaketela eta erradiazio atmosferikoaren transmisiok sortutako arazoen eraginpean egongo direla (hodei estalduraren ondorioz falta diren datuak kasu). Hori dela eta, *in situ* datuek sateliteen datuek baino eskalen parekatze hobea duten neurketak eskaintzen dituzte, batez ere kostaldetik oso gertu dauden eskualdeetan.

Itsasoaren gainazaleko tenperatura parametro kritikoa da Itsaso Baltikoko muskuiluentzat, *upwelling* prozesuetan eragiten baitu eta, ondorioz, ur zutabearen nahasketa bertikalarekin eta fitoplanktonaren dinamika zehazten duten mantenugaien mobilizazioarekin lotuta baitago (Wasmund et al., 2008). Lan honetan, ez da anomaliarik aurkitu SST-ri dagokionez, laginketa urteak urtaro zikloarekin alderatuz gero, nahiz eta tenperaturaren joerak desberdinak diren bi tokietan. Tvärminne-n tenperatura baxuagoko aldi luzeagoak daude Kiel-ekin alderatuz gero, eta udako tenperatura altuen aldia laburragoa da. Guneak alderatzean sasoiko joerak hartu behar dira kontuan, data jakin batean lagintzen diren muskuiluak ingurumen baldintza ezberdinen eraginpean egon daitezkeelako.

SST-ren antzeko joerak ikusi daitezke Chl-a eta POC kontzentrazioei dagokienez. Kiel-en, muskuiluak udaberriko fitoplanktonaren loraldian eta POC-en bigarren gailurretan lagindu ziren, eta neurri txikiagoan udazkeneko muskuilu bilketa baino denbora pixka bat lehenago eman zen produkzio primarioaren emendioa. Kiel-en udako laginketa aldian elikagaien hornidura maila baxuenean zegoen. Tvärminne-n, Chl-a eta POC kontzentrazioak maila altuetan zeuden muskuiluak udaberrian bildu zirenean, urteko fitoplanktonaren eta karbono organikoaren lehen loraldiarekin bat eginez. Ondoren, elikagaien hornidura egonkor mantendu zen udarara arte. Udazkenean

Tvärminne-ko muskuiluak elikadura egoera nahiko onean zeuden, eta horrek adieraz dezake Finlandiako golkoan (Raateoja et al., 2011) udako zianobakterioen loraldi kaltegarriek ez zutela asaldura fisiologiko handirik sortu urte osoko eskalan.

Ehunetako PAH kontzentrazioa orokorrean baxua izan zen, eta detekzio mugatik gorako konposatuak, kasu guztietan, Itsaso Baltikorako ontzat jotzen diren balioen azpitik zeuden (HELCOM, 2018). Kiel-en udazkenean lagindutako muskuiluen 15 PAH-en batura gainontzeko taldeetakoa baino nabarmen handiagoa izan arren, ezin da kezka gunetzat hartu (Turja et al., 2015). Ehun bigunetan aztarna metalen kontzentrazioa ere baxua zen. Itsaso Baltikoan lehentasunezko substantziatzat hartzen diren hiru metalak (kadmioa, beruna eta merkurioa) Itsaso Baltikoko GES atalasearen balioen azpitik edo zertxobait gainetik zeuden (HELCOM, 2017). Ondorioz, laginketa-estazioetako kutsatzaile maila baxuek iradokitzen dute biomarkatzaileetan erregistratutako aldakortasunak ez zuela kutsatzaileen eragin handirik izan, hemen eztabaidatutako beste faktore batzuena baizik.

Ikerketa honetan, bi tokietako ADG zelula dentsitaterik handiena udazkenean aurkitu zen errutea gertatu ostean, eta hori aurrekoarekin bat dator. Udazkenean bi lekuetan ADG zelulen maila handiagoak neurtu izanak adierazten du muskuiluek erreserba energia metatu behar dutela neguko elikadura baxuko aldirako, iparraldeko Itsaso Baltikoan hegoaldean baino gehiago irauten duenak.

Tokien arteko muskuiluen fase gametogenikoen desberdintasunak osasun egoeraren ebaluazioan erabilitako biomarkatzaileei eragin diezaieke (Cuevas et al., 2015). Kiel-en udaberriko loraldia otsailaren erdialdetik apirilaren hasiera bitartean gerta daiteke (Wasmund et al., 2008), eta hori koherentea da lan honetan antzemandako errute aldiarekin (ziurrenik martxoa edo apirilaren hasieran). Tvärminne-n, berriz, muskuiluek udan eta udazkenean errun zuten; lehenengo errute aldia loraldiarekin azaldu daiteke eta bigarrena udazkeneko loraldi posible batekin lotu liteke. Beraz, bi guneetan aldi berean lagintzen diren muskuiluen egoera fisiologikoa nahiko ezberdina izatea posible da. Hori dela eta, loraldien garaia aldatzen denean ugaltzearen hasiera erregulatzen duela ondorioztatu daiteke, eta, hortaz, biomarkatzaileak erabiliz muskuiluen osasun egoera baloratzeko orduan, tokiko baldintzak arreta handiz hartu behar dira kontuan interpretazio okerrak ekiditeko.

